

# uk

222. zenbakia / 2012ko azaroaren 6a



2012 - 2013 IKASTURTE BERRIA  
MATRIKULA ZABALIK

**Margolaritza  
Marrazketa  
Eskulanak  
Argazkigintza  
Ikastaro Bereziak**  
3 urtetik aurrera

Gabonetako Tailerrak  
Abenduak 21 - Urtarrilak 4  
09:30 - 14:00

Aukeratu tailerra  
eta ospatu gurekin  
zure urtebetetzea!

**Zirri-marra ARTE TAILERRA**

Arbato 2, Getxo; sarrera, Aingeruaren Etorbidetik.  
Telf.: 944916186 - 688 811 696  
e-mail: zirrimarrarte@gmail.com

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea  
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337  
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga  
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate,  
Nere Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga  
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka  
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega  
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Fredi Paia,  
Armando Llamasas, K. Olate, Amaia Arriaga, Pedro Garcia  
Larragan, Aritz Bergara, Algortako Bertsu Eskola eta Bizarra  
Lepoan Euskara Elkartea  
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel  
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)  
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00  
ISSN: 1576-6799  
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK


Non zer

- 4. PLAZA.
- 5. IRUDIA. Deabru Beltzak Algortan.
- 6. FACEGUK. Lehendakari izango bazina zer aldatuko zenuke?
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Neguri.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Elvira Gutierrez Jauregi.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
- 25. AGENDA.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Arriluzeko paseanteak.
- 28. ARGAZKIA. Txoritxu, Getxoko azken arrantza-ontzia.
- 30. BERBETAN. Anari.
- 34. FOTOGRAFIA. Itoiz Navarro.
- 40. SAKONEAN. Barrika eta Lemoiz arteko biotopoa.

KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Dokumental batzuk aukeran...
- 43. MUSIKA. Banden Lehia.
- 44. LIBURUAK. Literatura Unibertsala.
- 45. KIROLAK. Getxoko ur-jarduerak.
- 46. MUNDUKATUAK. Iزار Fernandez Ugarte.
- 47. JENTILKOKA. Mari jainkosa.

AMAITZEKO

- 49. PINTXOTAN. Kalabaza-tortilla.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Algortako Aristegi Farnazia, 1965.
- 54. AITORMENAK. Itziar Atienza.

Azala: Itoiz Navarro

[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)



30 Anari

Berbetan

Azkoitiako rock musikariagaz egon gara berbetan, Sopelan emongo duen kontzertuaren aitzakiagaz...



11 Elvira Gutierrez



46 Iزار Fernandez

**Dacia Lodgy berria**  
Monobolumen handi bat  
**9.700€-tik aurrera<sup>1</sup>**

Aukeran 5 edo 7 plazakoa  
GPS nabigatzailea inorporatuta  
Maletategiaren edukiera: 2.600 dm<sup>3</sup>

**3 URTEKO**  
WARRANTY 100.000 km

**Dacia Lodgy: kontsumo mistoa (l/100 km) 4,2tik 7,1era arte. CO<sub>2</sub> emisioa (gr/km) 109tik 165era bitartekoa.** Dacia recomienda **elf**

**BILBO BERRI** Jon Arrospeide, 20. Tel. 94 448 39 00. Deustu - Bilbo  
**LEIOA BERRI AUTO** Iparragirre Etorbidea, 24. Tel. 94 480 42 90. Leioa

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....  
Kalea/zenb..... Herria.....  
e-mail.....  
Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero  20 euro  30 euro  50 euro  
 beste kopuru bat ..... euro

Kontu zenbakia (20 digito)  
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

**Leihatila**

&gt; Pedro Garcia Larragan

**Gezurrak**

Gure gizartea txirotzen doa. Etengabe. Krisiak daukan eraginik zorrotzena hori da: soldatak gutxiagotu, gero eta jende gehiago euren pisuetatik bota, langileak kalera bidali... eta gutxi batzuk, hori bai, aberasten.

Lehenengo egunean Joseph Stiglitz ekonomia nobel saridunaren azken liburuan irakurri nuen: 'gure gizarteetako ehuneko batek dauka beste laurogeita hamarrek beste'. Eta Euskadin ere bai. Joan den astean argitaratu zen txosten ofizial batean argi eta garbi azaldu zen: Euskadiko 24.000 pertsona 44.000 milioi euroren jabe dira. Hau da, Euskadiko biztanleriaren %1ek, gure herriko aberastasunaren %70 dauka.

Benetan zirrarragarria. Desoreka inposatzen ari da, eta horrek ezin gauza onik ekarri. Edo joera aldatzen dugu, edo ez da Einstein izan behar, hurrengo urteak gure artean gero eta gatazkatsua goak izango direla aurreratzeko. Desoreka ez da, nahitaez, onartu behar dugun halako ekidin ezinezko ondorioa. Hori ere, gezur hutsa da.

**gu geu****Deialdia: UK A-15**

Aldizkari bat zein neurri motaren arabera neurtzen da? Urteen arabera, orrialde kopuruaren arabera, koloreen arabera, edukien arabera... Eztabaida luzea; hainbat buru horrenbeste aburu... Ostera, urte hauetan danetan, UK-k hainbat eta hainbat arlotan aldaketa, egokitzapen, zaharbarritze, zabaltze zein murrizketa izan ditu. Bizarra Lepoan aldizkariaren ondorengo izanik, eta haren bitartea kontuan hartuta 18 urte beteko ditu datorren urtean. 18 urte gaz gauza asko egiteko baimena lor daiteke, hainbat eskubide eta betebeharrak ere bai. Batzuek diote "Heldutasunerako bidea" hasten dela adin horretatik aurrera... Batek daki! Guk badakigu aldaketak datozela mundura, eta UK-ren egitasmoa egokitzeko eta, batez ere, indarbarritzeko sasoi heldu dela. Horretarako arlo eta neurri guztietan UK-kide izan zaretenoi UK-ren aro barriaren gainean eztabaidatzeko gonbidapena luzatu gura dizuegu: azaroaren 15ean (19:00) izango da... Adi deialdiari!

**UK-ko lan-taldea****Iritzia**

**UK-n bidelagun dugun Fakun Aznarez militante internazionalista argentinar-berangoztarrak, herrien elkartasunaz, euskal internazionalismoaren bidez jardun du.**

**25 urte eta aurrera goaz!**

Oroimena baina zer da bada aurrera egiteko heldulekia ez bada? Historiaren hari horri tiraka, Hego Euskal Herrian NATOri ezezkoa eman genion, iraultzaren suak ez zuen etenik, Nikaragua, El Salvador, Kuba... Hamaika herri garen arren borroka bakarra

**«Azaroaren 10ean Altsasun elkartuko gara»**

Jakitun beti ere, gainerako herriek egin dakiekeen mesederik handiena gure askapen nazional eta soziala gauzatzea direla. Bidea baina, ekinez egiten da eta ordutik hona joan-etorriko elkartasunak ez du etenik izan. Euskaldunok bakarrik ez gara ari erakutsi digute azken urteotan Euskal Herriaren aldeko lagunek. 1994an berriz, Uruguaiako herriak euskal errefuxiatuen aldeko eginahaletan protesta izugarriak burutu zituzten. Filtroko gertakari haietan, bi lagun erahil zituen polizia.

Bestalde, milaka izan dira munduan iza-

niko euskal brigadistak, ehundaka kanpaina, eta testu batean sartzea ezinezko zaizkigun sentipen itsasoa. Sorrera urteetan ertamerika ere bazen elkartasunaren jomuga, zapatistek munduari aurpegia erakutsi eta gure arreta bereganatu zuten. Honela, mundu uniforme eta globalizatuan, euskaldunak ere Europako jatorrizko herritar ginela erakutsi ziguten. Milurtekoarekin batera, prozesu bolivartarra bigarren eta egiazko independentziaren aldeko eginahaletan zebilen bitartean, guda inperialistak areagotzen ari ziren munduan. Azken hamarkadan berriz, besteak beste, palestinar herriarekin zubi lanak eraikitzen aritu gara, eurek eskaturiko nazioarteko boikot deialdiarekin bat eginez. Bidean ordea, hainbat izan dira erori direnak, internazionalismoa azken muturrera eramandako euskaldunak; Pakito, Marta, Begoña eta erori diren guztiei zor diegu lanean jarraitzea.

Egin ahal honetan, Askapena bera ere eraso zuten eta herri honetan gehiegitan gertatzen den gisan, gure etxean sartu, atxilo eramane eta kartzeletan edo Askapenako auziperatuak bezala, epaiketaren zain daude egun. Erasoak eraso, euskal internazionalismoak aurrera egiteko beharra zuen eta du orain ere. Inoiz ezagutu gabeko eraso etengabea dihardu kapitalismoak: inbasio militarrek burutuz, murrizketak, estatu kolpeak. Munduko banku eta transnazionalen diktaduran bizi gara. Eta zentzu honetan, Internazionalismoak berebiziko garrantzia du. Euskal askapen sozial eta nazionala lagunduko duten bide lagunak behar ditugu aurrera egin dezagun. Baina aldi berean, Euskal Herriak, inperialismoa ahultzen duten prozesuak babestu behar ditu, baita gainerako borroketatik ikasi ere. Azaroaren 10ean beraz, Altsasun elkartuko gara, ordura arte!

**Julen Zulaika eta Fakun Aznarez**  
(Askapenako kideak)



ALGORTA, 2012KO URRIA

**Deabrua dator.../** Igaro barri da Domu Santu edo Santu guztien eguna delakoa, azaroaren 1ean ospatu zena. Beldurragaz lotu ohi da askotan egun hori; hilerrira bisita asko egiten delako ete? Gauzak horrela, Algortan deabruak agertu ziren Domu Santu baino lehen, urriaren 19an: *Wolves* lana antzestu zuen Deabru Beltzak taldeak, Antzerki Jardunaldien barruan. Ez dakigu norbait beldurtu zuten, baina saio ikusgarria izan zela argi dago: gaua, sua, panpina erraldoiak... magiaz beteriko gaua bizi izan zuten Algortako Geltokia plazara hurreratu ziren lagunek. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

# Lehendakari bazina zer aldatu edo hobetuko zenuke?



Leioa

**Estela Puente**

> **Lan-harremanetan lizentziaduna**

Nik gehiago begiratzen diot herriari, gertukoena dut-eta. Leioak ez dauka erdigune bat eta uste dut behar duela, jendea elkartu ahal izateko. Bestela, herritarrak sakabanatuta daude. Jende asko dago, gazte asko, eta herrian geratu behar du, gauza interesgarri asko dago-eta.



Leioa

**Teresa Lopez**

> **Saltzailea eta tabernaria**

Nik ekonomia-politika aldatu eta hobetuko nuke. Ez dakit zelan, oso zaila delako, baina horretan eragingo nuke. Desberdintasun sozial handiak daude gaur egun: batzuk oso aberatsak eta besteak txiroak, eta aberastasuna banatu behar da. Oso zaila bada ere, horretan egingo nuke indarra.



Sopela

**Ana Ponton**

> **Erizain-laguntzailea**

Sopelan urbanizazioa ez dago ondo egituratuta. Nire ustez, gehiegi eraiki da eta, gainera, etxe txikiak dira, altuera txikiak: zabaleran eraiki da, ez altueran. Jende gazte asko dago herrian, baina gainontzeko herrietan ere, eta ez daukate etxebizitzarik. Hori azpimarratuko nuke.



Leioa

**Arantza Sarro**

> **Ingurumen-kimikaria**

Zaila da herritik kanpora begiratzea, gehiago ezagutzen dut Leioako egoera. Bertan, nire ustez, umeentzako ekimen asko dago, baina ez, ordea, gazteentzat. Hemen gazte asko dago, baina ez dago eskaintzarik eurentzat, ez Leioan, ez Leioatik kanpora.



Leioa

**Jose Ignacio Sustatxa**

> **Argazki-laborategiko langile-ohia**

Lehendakari banintz aldatetak egingo nituzke ekonomian eta politikan. Ekonomia arloan banaketa hobea egingo nuke, ez gertatzeko hainbeste desberdintasun pertsonen artean. Administrazioari dagokionez, politikarien lagunak kaleratuko nituzke, "entxufatu" dituzten horiek.



Leioa

**Susana San Juan**

> **Delineantea**

Nik egingo nuke institutu barri bat herrian: orain daukaguna oso zaharkituta dago, erortzean. Esan dute barria egingo dutela, baina herriko kanpoaldean, ez erdigunean. Nahiago nuke herri-gunean egitea, ume batzuk txikiak direlako kanpora joateko.



GETXOKO UDAL LEBURUTEGIAK UTZITAKO AFRANZIA



ASERMENTYAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / NEGURI

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

### uribitakora > komunetan



Romon, 2012ko irailean

Testua: **Itxaso Paia** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

\* Doinua: *Maisu Ruanda zer da*

Tramankulu biribil,  
Gordailu abstrakto  
Txizaldirik onenen  
Patxadaren gako:  
Gainean utz daiteke  
Nahi beste tabako  
Poltsa bertan eseki  
(e)Ta orduan, bapo!  
Konplementu bikaina  
Komun batentzako.

Agian ez zenuten  
Nigandik espero  
Baina txikitan denok  
Geunden erdi ero...  
Nor ez zen izan jolas  
harexen bezero?  
Paper puska bat hartu,  
metro erdi edo,  
sabaira botatzeko  
busti eta gero!!

Barruan gordetzen du  
Papel garbi anitz,  
Erabili ohi dena  
Beharizan handiz,  
ondo igurtziz gero  
Behar beste aldiz  
Zikin zegoen hori  
Garbi dago berriz.  
Ai Kaka dena hain erraz  
Garbituko balitz.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

### kartelak > batu eta gorde!!



Irudian, Agirre. Info+: [www.lbfundazioa.org](http://www.lbfundazioa.org)

**Juan Jose Agirre** monje beneditarrak lau hamarkada baino gehiago daroa euskal gaien inguruko kartelak, pegatinak, afixak e.a. batzen eta gordetzen. Iaz Lazkaoko Beneditarrek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lazkaoko Udalak Lazkaoko Beneditarren Fundazioa eratu zuten, Agirrek bildutako funts dokumentala jaso, lanari jarraipena emon eta horiek denak gizartearen esku ipintzeko asmo-

agaz. Hauteskundeak izan direla eta, barrero bere, dei egin dute erabilitako eskuorriak eta beste bidaltzeko eskatuz (Lazkaoko Beneditarren Fundazioa -Elosegi 27, 20.210 Lazkao-). Bide batez, gogorazi dute jaietako programak eta mota daretako kartel eta pegatinak jasotzen dituztela; "egunen batean oso baliagarriak izango dira...", gure historia eta ondarearen parte dira-eta! ○

### umeen heziketarako > Hazi Hezi aldizkaria

**Maiatzean** aurkeztu zuten Hik Hasi elkarteak, Irrien Lagunak Klubak eta Guraso.com ekimenak bultzatu, Sortzen Ikasbatuaz eta BIGE elkarteek babesten duten, Hazi Hezi hiruhilabetekaria; ondorioz, laster egon behar du plazan zenbaki barriak. Haurren heziketari begira, hutsunea ikusi zuten zeregin horretan funtsezkoa den etxeko eremuan, eta kon-tuan hartuta "familia ereduak, amatasun

*eta aitatasun ereduak bereziki, aldatu diren garai honetan, galdera berriak dauzkate gurasoek, eta haiek mahai gainean jartzen eta erantzuten saiatuko da Hazi Hezi". Aldizkaria Elkar sareko liburudendetan eskura badaiteke ere, harpidetza da aldizkaria jasotzeko bide nagusia, baita proiektuari laguntza ematekoa ere. Urtean lau zenbaki, 20 euroren truke. ○*

Info+: [www.hikhasi.com/aldizkariak](http://www.hikhasi.com/aldizkariak)



Hazi Hezi hiruhilabetekariaren 1. zenbakiko azala

### sarean > Lur entziklopedia osorik



Lur Entziklopedia liburu euskarrian

**Lur Hiztegi** Entziklopedikoa eta Lur Entziklopedia Tematikoa osorik saretik jaisteko aukera dago. Hiztegia 1991-1995 biartean argitaratu zen, 10 liburukitan, eta entziklopedia tematikoa 1999 urtean hamahiru liburukitan. Aurten, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bai entziklopedia bai hiztegia ere sarean kontsultatzeko aplikazio informatikoa aurkeztu, eta

kontsultagai ipini zituen. Bata zein bestea jaisteko Open Data Euskadi webgunera joan beharko du interesa daukanak, eta kotsulta azkarren bat edo behin-behinekoa egin gura duenak Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako webgunean sartu eta bertan agertzen den bannerrean sakatu beharko du. ○

Info+: [www.opendata.euskadi.net](http://www.opendata.euskadi.net)  
Kontsultatzeko: [www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net)

Inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia




DESKARGATU DOAN EUSKERAZ  
[www.cianoplan.es/baliabideak](http://www.cianoplan.es/baliabideak)

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763  
[www.cianoplan.es](http://www.cianoplan.es)

**saiazgetaria**  
HOTELA



Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa

...harria ...lehengo garaiak... ...itsasoa

[www.saiazgetaria.com](http://www.saiazgetaria.com) / [info@saiazgetaria.com](mailto:info@saiazgetaria.com) / T.F. (+34) 943 140 143

# URTERO 20€

Harpidetu  
eta jaso UK  
zure etxean,  
hamabostero.  
Urtero 20 euro.

Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki.  
Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri.  
Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean.  
Urtero argazki zahar eta barriak.  
Urtero zure proiektuak lau haizetara.  
Urtero 20 euro.



neuk ere gura dot

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

[erretratua]



“Lehengo Portu Zaharra ezberdina zen; neba-arrebak ginen guztiok, familia handi bat”

## Elvira Gutierrez Jauregi > Portu Zaharreko istorioak josten

**Herri** baten altxor preziatua da nagusien oroimena. Edadekoek, euren herriko istorio, kondaira eta ohiturak harilkatu dituzte belaunaldiz belaunaldi. Istorioen jostunak auzo eta herri guztietan topa ditzakegu; Algortako Portu Zaharrean, berbarako, Elvira Gutierrez Jauregi topatu dugu josi eta josi, aspaldiko Portu Zaharra akorduan: “*Lehengo Portu Zaharra ezberdina zen, ateak zabalik uzten genituen, kalera urten eta jende guztiagaz berba egiten genuen... Neba-arrebak ginen guztiok, familia handi bat*”. Bertan 54 urte daroan arren, ‘guaita’ peto-petoa ez dela nabarmentzen du Elvirak: “*Berangoko Santa Anan jaio nintzen, bertan hiru egun egon eta Laredora ihes egin genuen gerra zela-eta. Hortik Deustura joan ginen, eta 19 urteagaz portura*”. Bere ama, Elvira Jauregi Gutierrez, portukoa zen, horregatik bueltatu ziren auzora: “*Amari asko gustatzen zitzaion hemengo giroa. Baina hori galdu da. Oraingoa ez da Portu Zaharra*”. Jaiak ere asko aldatu dira, masifikazioa dela-eta: “*PVC-zko leihoak ditudanetik ez dut arazorik lo egiteko*”. Eguraldi ona dagoenean, giro elitista samarra batzen da auzoan: marianitoak, txakolinak, rabak... eta Elviraren tomateak. Izan ere, postutxoak jarri ohi du etxe aurrean, josten duen bitartean: “*Orain gutxiago saltzen dut, ‘money’ gutxi dago*”. Arrastian, “*mendirra*” joaten da, hau da, Generatxu parkera, lagun batez, josten jarraitzera... ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

# Aurrekontuak prestatzen hasita

**2013rako udal-aurrekontuak lantzen hasi dira: EAJ eta Bildu alkarregaz hitz egiten hasiko dira eta, azken horrek, proposamena era “parte-hartzailean” osatzeko prozesua abiatu du**

Iaz akordiorik ez zuten lortu Getxoko Udaleko alderdiek eta, horrenbestez, 2011ko aurrekontuak luzatu zituzten. Gauzak horrela, daborduko hasi dira lantzen 2013koak eta EAJ eta Bildu alkarregaz berba egiten hasi dira. Azken horrek, bere aldetik, aurrekontu “parte-hartzaileak” osatzeko prozesua abiatu du eta horretarako herritarrazak bilduko da hainbat asanbladatan.

**Aurreko urtean** aurrekonturik onartu ez zutela kontuan hartuta, 2013rako udal-aurrekontuak lantzeari ekin diote udal-alderdiek. EAJk eta Bilduk alkarregaz hitz egiten hasiko direla adierazi dute. Akordiorik lortu ezean, aurrekontuak barrero luzatu beharko dituzte.

Gauzak horrela, aurrekontuak “*beste modu batera egin daitezkeela erakutsi gura*” du Bilduk: “*udal-dirua zertan eta zelan inbertitu behar den erabakitzea guztion artean egin behar dugu; are gehiago bizi dugun momentu sozio-ekonomikoan*”. Horregatik abiatu du “*Udal dirua, denon kontua*” deritzon prozesua.

Horrela, galdetegiak banatu dituzte herritarrei galdetzeko non inbertitu gura duten udal-dirua. Galdetegi-mota bi dira: batetik, merkatariei zuzendutakoa eta, bestetik, etxe guztietara helaraziko dutena. Lehenengo kasuan, “*Getxon krisi ekonomikoari aurre egiteko sektore ezinbestekoa dela*” uste du Bilduk.

Bigarren kasuan, iaz jasotako zenbait



Adostasunik lortu ezean, 2013an barrero ere luzatu beharko dituzte aurrekontuak

proposamena buruz galdetuko diete herritarrei, “*udal inbertsioan euren preferentziak zeintzuk diren ezagutzeko*”.

Horregatik, herri-asanblada irekiak egingo dituzte auzoz auzo “udal-kontuek zelan funtzionatzen duten azaltzeko,

**“Bilduk herri-asanblada irekiak egingo ditu: azaroaren 13an Romon eta 14an Algortan”**

aurreko urteko prozesuaren barri emoteko eta 2013ko inbertsioek nora bideratuta egon behar duten galdetzeko”. Romon azaroaren 13an izango da, martitzenean, eta Algortan 14an, eguenean.

Ildo horretan, Bilduk eskatu die “*getxoztar guztiei*” galdetegiak betetzeko eta eurei bidaltzeko: “*Benetan beharrezkoa*

*ikusten dugu jendearen iritzia jasotzea, baita Bilduren proiektuagaz guztiz bat ez datozenena ere*”.

Koalizioak jakinarazi du, era berean, aurrekontuen prozesuan ematera doan pauso guztiak publiko egingo dituela, “*aurreko urtean egin bezala*”. Horretarako informatzen jarraituko dute hainbat tresnaren bitartez: aldizkaria, webgunea, buletin digitala eta prentsa.

Bestalde, esatea UK-ko zenbaki hau ixterakoan izan genuela zergei buruzko akordio baten barri, EAJ eta Bilduren artekoa: IBI, Jarduera Ekonomikoa, Plusbaldia, Obrak eta Ibilgailuen zergak barne hartzen ditu, ez tasarik, ez bestelakorik. IBiren kasuan, zerga izoztuko dute eta errenta txikiko getxoztarrek diru-laguntza izango dute hura ordaintzeko. ○

## Komikia eta manga

banatuko dira eta aurten azoka bi egingo dituzte



Info+: [www.salondelcomicdegetxo.net](http://www.salondelcomicdegetxo.net)

**Ez Asterix, ez Tintin.** Klasikoak baino askoz gehiago topatuko duzu Komiki-Azokan, azaroaren 23tik 25era; ohi legez, Areetako Geltokia plazako karpan izango da, baina beste hainbat ekimen antolatu dituzte. XI. edizio honetako nobedaderik handiera zera da, Manga-Azoka aparte egingo dutela, abenduaren 1ean eta 2an, leku berean. Baina oraingoan Komiki-Azokaren egitarauaz arituko gara.

Hasteko, esatea azoka baino egun batzuk lehenago hiru erakusketa ipiniko dituztela herrian, hilaren 19tik aurrera: Bizkaia Zubian Raquel Alzateren *La caja oscura*, Areetako Glass kafetegian K. Azpitarte eta Angel Unzuetaeren *Reliquias*, eta Romoko Jai Alai kafetegian Iñaketen *Old Dibuix eta Nuevos*. Abenduaren 10era arte ikus ahalko dira hirurak. ○

Azokari dagokionez, 60 postu ipiniko dute eta zabalik egongo da 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara. Salmenta postuez gain, hainbat ekintza prestatu dute gune horretarako: mahainguruak, film emanaldiak, hitzaldiak, tailerrak, e.a. Adibidez, karparen inguruan *Balanzin* aldizkariaren erakusketa izango da. Sarrerak 1,50 euro balioko du.

Bestalde, hainbat artista gonbidatuko dituzte azokara: bertan izango dira, esaterako, Eddie Campbell eskoziarra eta Miguelanxo Prado. Gainera, Azokak omenaldia egingo die Norma Editorial argitaletxeari eta Luterl Taldea euskal kolektiboari; azaroaren 23an izango da ekitaldia, karpan bertan. Manga-Azokari buruzko informazio gehiago izango duzu UK-ko hurrengo zenbakian. ○

## GETXO ANTZOKIAREN 4. FASEA ABIATU DA

Kulturgune barriaren eraikuntzako azken-aurreko faseko lanak azaroan abiatuko dira eta urtebete iraungo dute, Udalak jakinarazi duenez. 4A fase honetan egingo dituzte estalkiak (Getxo Antzokiko eta Musika Eskolako goialdeko elementu horizontal guztiak egokituko dira, baita plaza barriko lurrazpiko estalkia ere), instalazioak (airea girotzekoa, argindarra, telekomunikazioak, saneamendua, iturgintza, eta suteen aurkako babeserako sare eta azpiegiturak) eta zatitzeak (barrualdeko banaketa). Lanok amaitu aurretik hasiko ei dituzte 4B (fatxada eta instalazioak) eta 4C (akaberak) faseak ere.

## IZARREN DISTIRA GALA AZAROAREN 11N

Izarren Distira gazteentzako arte eszenikoaren euskara hutsezko ikuskizunaren kastinak egin dituzte daborduko eta, laster, azken gala izango da, azaroaren 11n, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 1994 eta 2000 bitartean jaiotakoek parte hartzen dute lehiaketan, edozein motatutako saioa eginez, bakarka zein taldeka: musika, dantza, antzerkia, zirku-teknikak, monologoak, txisteak, bertsoak, e.a. Irabazleek Port Aventura-ko bidaia eskuratuko dute, sei lagunentzat.

Info+: [www.izarrendistira.com](http://www.izarrendistira.com)

## MAGREBI BURUZKO JARDUNALDIAK

Azaroaren 5etik 17ra Magrebi buruzko jardunaldiak izango dira Getxon: azaroaren 5ean dantza-tailerra egingo dute Villamonteko liburutegian, 6an hitzaldia Magrebeko emakumen borrokari buruz Algortako kultur etxean, 8an sukaldaritza-tailerra Fudurako Ostalaritza Eskolan, 10ean arabieraren idazkera-tailerra Gobela kiroldegian, 14an zineforuma Algortako kultur etxean, 15ean ipuin-kontaketa Gobelan eta 17an magrebtar jaia Algortako kultur etxean. Gainera, erakusketa bat izango da Algortako kultur etxean.

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)



### AIXERROTA BHI

TEKNOLOGIHOA  
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) E TA D EREDUAK  
ZEREGINAK IRASTERO GELA (A ETA B EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / TF. 94 491 17 86



**Jokin Etcheverria eta Benjamin Duinat** > *Nire argazkia* dokumentala

“Belaunaldien arteko eskuaran txikiagoak dira aldaketak, eskuara mantentzen den tokietan”



Urriaren 24an aurkeztu zuten egitasmoa Bilboko Kafe Antzokian

**Nire argazkia** izena daukan dokumentala egin dute Jokin Etcheverria eta Benjamin Duinatek euskalkiei buruz; lapurtarrak dira, baina Etcheverria Getxon bizi da gaur egun. Dokumentalean Euskal Herriko hainbat txokotako familiak elkarriketatu dituzte, euskalkiak entzuz guran, baita belaunaldien artean euskarak izan duen bilakaera ikusi guran ere. Gainera, Iñaki Gaminde hizkuntzalariak ere parte hartu du. Lekeitio, Azpeitia eta Donapaleuko hiru familiak parte hartu dute aurkeztu barri duten lehen atalean.

—Familiak dira egitasmoaren ardatza.  
—Familia bakoitzeko hainbat belaunaldi agertzen dira. Haien argazki bat aurkezten dute eta horrekin lotutako oroitzapenak kontatzen dituzte, narrazio bat osatuz. Horrekin batera, Iñaki Gaminde hizkuntzalariak ere hitz egiten du, euskalki bat zehazki zer den argibideak emateko zientziaren ikuspegitik.  
—Helburua zer da: euskalkiak entzutea?  
—Hori da. Horregatik argazkiaren eta narrazioaren ideia. Baina ez da dokumental soila: epe luzerako egitasmoa da, hain-

bat atal izango dituen seriea. Ikus-entzule ororentzat izango da, ez bakarrik adi-tuentzat.  
—Euskalkiez gainera, belaunaldien artean euskarak izan duen bilakaera ere jasotzen duzue, ezta?  
—Familiak horixe erakusten digute: kide batetik bestera nola mugitzen den euskara. Hastapenean kutsu nostalgikoa zeukan eta Gamindekin hitz egin ondoren, euskara norantz joaiten den ikusi behar dela ohartu ginen, eta erabaki genuen familia zela toki onena hori erakusteko:

belaunaldiz belaunaldi ikusteko zein den diferentzia edo parekotasun gradua.  
—Ildo horretan ezustekorik izan duzue?  
—Egia esan, sorpresa handirik ez, aurreikusten genuena baieztatu genuen: arras eskualdunak diren eremuetan edo eskual-

### «Ikus-entzuleek lagunduko digute definitzen bidea»

deetan, aitona-amonen eta loben arteko diferentziak txikiagoak dira eskuara galtzen hasi den eremuetan baino. Galtzen hasia bada, nahiz eta transmititzen den eskuara etxean, desberdintasunak handiagoak dira, gaztelania edo frantsesa presenteko baita eguneroko bizitzan.  
—Nongoak dira familiak?  
—Lehen atal honetan agertzen dira Lekeitio, Azpeitia eta Donapaleuko familiak. Gainera, Gamindekin grabatu dugu toki desberdinetan: unibertsitatean, bere etxean... hiru aldiz agertzen da.

—Eta orain aurrera begira zaudete, atal barriak prestatzen, zelakoak izango dira?  
—Bai, baina oraindik ez dakigu zehazki nola gauzatuko ditugun. Hau da: agian formulak desberdinak izan daitezke, baina momentuz ez dago ezer finkatuta; ikus-entzuleen iritziek lagunduko digute definitzen jarraitu beharreko ildo, bide batean edo bestean sakontzeko. Emaitzarekin pozik gaude eta orain esperantza dugu jendea ere pozik egongo dela. Bilbon aurkeztu dugu eta asmoa daukagu Euskal Herrian itzulita egitea: hainbat udalekin harremanetan gaude gure lana aurkeztu eta hitzaldiak egiteko, baina oraindik ez dakigu zehazki non. Lan-talde txikia gara, horrelako zerbait egiteko garrantzitsua baita intimitatea ukaitea. ○

## Hezetasuna jaietan!

**Azaroaren 9tik 11ra** Hezetasuna auzoan izango dira jaiak, eta **kontzertuak Faduran**



Herri-krosa egin ohi dute jaietan

**Apurka-apurka** indarra hartzen doaz Hezetasuna auzoko jaiak eta, aurten ere, ekimen mordoa prestatu du Jai Batzordeak azaroaren bigarren aste akaburako; euren lema da: “*Jai herrikoiak bultzatuz... Hezetasuna aurrera!*”.

Benetan indartsu datorrena da kontzertuen eskaintza. Batzuk auzoan bertan izango dira eta beste batzuk Fadura kiroldegiko aparkalekuan; bertan karpa ipiniko dute euria eginez gero ez bustitzeko eta txosnak egongo dira; bokatak ere zerbitzatuko dituzte. Beraz, hilaren 9tik 11ra egongo da zer gozatu Algortako txoko horretan, baina goazen egunez egun.

Barikua 9an 21:30ean hasiko dira Fadurako kontzertuak: taula gainean arituko dira Erasoka, Kaleko urdangak eta Madskins taldeak. Auzoan, barriz, DJ Txuilsonen girotuko ditu bazterrak 22:00etatik aurrera.

Zapatuan herri-bazkaria egingo dute 14:30ean auzoan eta kontzertuak gauean. Faduran Arkada social, Amargor eta Governors taldeek joko dute 21:30etik aurrera eta, auzoan, ordu erdi lehenago hasiko da The Substitutes; horren ostean musika ipiniko du Euskal DJ-k. Gainera, haimaika ekintza antolatu dute egunero. Ez da plan makala sanmartinetarako! ○

## EUSKAL KULTURAREN JARDUNALDIK AZAROAN ETA ABENDUAN

Abenduaren 3an ospatzen da Euskararen Eguna eta, haren harira, urteroko hitzordua dira Euskal Kulturaren Jardunaldiak Getxon; azaroan eta abenduan garatuko dira ekitaldiak. Daborduko ikusgai dago Oskar Alegriaren *Hitz-enea* erakusketa Algortako azokan; hil osoan egongo da bertan. Baina bada gehiago. Azaroaren 10ean *Maddi Pirata* lana antzeztuko du Anne Mona, Oskola eta Karramarroi taldeak Areetako Andres Isasi musika eskolan, 12:00etan. Bizarra Lepoan Euskara elkarteko lagunek antzezlana antolatu dute eta 4 euro ordaindu beharko da sartzeko: Bizarra Lepoan bulegoan (Martikoena 16) eta Kukupraka Ludotekan (Areetan) eros daitezke txartelak. Azaroaren 21ean helduentzako antzerkia izango da, oraingoan Algortako Pipers tabernan: *Morritson eta Gartzia, kultoko antzezlana*. Biharamunean, barriz, eta Ixtas-Argiaren Mendi Astearen barruan, hitzaldia emongo du Alberto Iñurategik Faduran, 19:30ean: *Porrotaren gorazarrea* da izenburua. Azaroaren 24an Nazioarteko Trikitixa Jaialdia izango da Musika Eskolan, 19:00etatik aurrera. Azkenik, aipatzea Euskara Saria hilaren 28an emongo dutela Faduran, eta beste hamaika ekitaldi ere izango direla abenduan, baina horiek hurrengo zenbakirako utziko ditugu.

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

## SENDIREN AZAROKO JARDUERA-ESKAITZA

Udagoienera ere lotu barik dabilta Sendi egitasmoan eta, daborduko, abiatu dituzte jarduerak eta tailerrak ume eta gazteentzat, gehienak gurasoakaz batera egiteko. Beraz, azaroaren 23ra bitartean badago zer egin Sendigaz: erroskilak, txapak, jolasak, antzerkiak, xaboi ekologikoak, galletak eta sukaldaritza. Parte hartzeko ipini harremanetan Egizu elkarteagaz: [sendigetxo@yahoo.com](mailto:sendigetxo@yahoo.com) edo 685 73 29 63 (Lander). Animatu eta ondo pasa!

Info+: [www.egizu.org](http://www.egizu.org)

**lagusana**  
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59  
(Tellagorri plaza)  
48991 ALGORTA  
Tf. 94 491 14 12  
[gusanalibreria@gmail.com](mailto:gusanalibreria@gmail.com)



**Aitor Cañibano** > Travellin' Brothers musika-taldeko kidea

“Saiatzen gara beti gauza barritzaileak egiten, horregatik Gabonetako abestien disko hau”

**Christmas Special** izena eroango du Travellin' Brothers musika-taldearen lan barriak. Gabonetako sei abestiren bertsioak batuko ditu eta Big Band-agaz batera arituko da seikotea, barriro ere. Datorren hilean aurkeztuko dute diskoa Durangoko Azokan eta Kultur Leioan abenduaren 23an eskainiko dute kontzertua.

—Gabonetako abestiak moldatuko dituzue, zelakoak izango dira?

—Sei kanturen bertsioak grabatuko ditugu: AEBko lau kanturena eta beste bi euskal kanta, denak Gabonetakoak. Moldatuko ditugu danak blues eta swing erritmoetara, gure Big Bandagaz jotzeko. Horrelako bandakaz jotzen duten artista gehienek diskoren bat daukate Gabonetako kantuakaz eta guk ere gogoia geneukan horrelako zerbait egiteko. AEBn nahiko normala da hori, baina hemen ez da egin orain artean.

—Aurten AEBn egin duzue bira; handik ekarri duzue diskorako ideia?

—Mundu mailako lehiaketa batean parte hartu genuen; historian lehenengoz joan da Euskaditik eta Estatutik talde bat blues lehiaketara. Baina aurretik geneukan diskorako ideia eta asmoa; entzuten



Info+: [travellinbrothers.com](http://travellinbrothers.com)

ditugun artistengandik atera genuen: Collin James, Michael Bublé, Frank Sinatra eta beste askok daukate Gabon kantuetako diskoak. Gu saiatzen gara beti gauza barritzaileak eta bereziak egiten hemen ez da egin horrelakorik.

—Zuzeneko CD/DVDa, AEBko bira... urte oparoa izan da?

—Urte oso ona izan da guretzat. Grabatu genuen iaz DVDa eta formatua zuzenean aurkezten ibili gara: arrakasta handia izan

du, ikusleek oso ondo hartu dituzte diskoak zein zuzeneko kontzertuak; baita kritikoez ere. Estatu mailako blues eta jazz-jaialdi garrantzitsuenetan egon gara eta oso pozik gaude. Datorren urterako beste hainbat jaialditan parte hartzea espero dugu. Gainera, Bluenights saioakaz segituko dugu Kultur Leioan eta birak egingo ditugu Suitzan eta Alemanian. Uda goienean beste disko bat egin gura genuke, ea denborarik daukagun. ○

## ‘Jagolearen etxea’ barritu eta egungo kokagunean utziko du Udalak, erabilera publikoa emoteko



Langileria kaleko 202.ean dago etxea

**Azkenean** egungo kokagunean utziko dute Artatzako ‘Jagolearen etxea’, barritu ostean. Eraikin ezaguna Lamiako eta Pinueta arteko mugan dago eta barritzeko asmoa aspaldi dauka Udalak. Amaitutakoan erabilera publikoa emongo dio. Artatz Jauregiaren parte izan zen eraikina eta, gaur egun, Leioako ondare historikoaren parte da.

Udalaren arabera, eraikinaren berezko estetika mantenduko dute eta, gainera, atzeko aldean zati barria gehituko zaio edukiera zabaltzeko. Horrela, etxea lurzorua baino gorago kokatuko da terraza baten bidez eta pergola bat gehituko diote; zabalera 150 metro koadro baino gehiagokoa izango da eta berdegunea ere

izango du eraikinaren inguruan. Asmoa da zonalde horretako udal bulego desentralizatua bertan ezartzea eta, horregaz batera, “bestelako ekipamendu bat ezartzea herritarrei zuzenduta”.

Batetik, 60 metro koadroko bulego administratiboa ipiniko dute udal trami-teak egiteko —gaur egun Pinueta auzoan dagoena eta inguruko auzotarrek erabiltzen dutena—. Bestetik, txokoa egingo dute eraikinean, San Bartolome auzokoren modukoa, herritarrek erabiltzeko: sukaldea eta jantokia izango ditu ekintza gastronomikoak edota sozialak egiteko, eta 90 metro koadro. Guztira 500.000 euro jarriko du Udalak eta lanak urte honen amaieran hasiko dira. ○

## ARTISAUTZA AZOKA AZAROAREN 9TIK 11RA

*Ikusmenaren eta gastronomiaren plazaren azoka* laster izango da; UK-ko aurreko zenbakian iragarri genuena, azaroaren 9tik 11ra egingo dute, Bulebarren. Azoka horretan elkartuko dira artisauak, bai gastronomia alorrekoak, bai objektuak egiten dituztenak eta material desberdinak lantzen dituztenak. Goiz eta arrastiz zabalduko dituzte postuak, ohiko legez, herritarrek artisau-produktuak dastatu, ikusi eta erosi ahal izateko. On egin!

## RUPER ORDORIKA AZAROAREN 24AN

Kontzertua eskainiko du Ruper Ordorika abeslariak azaroaren 24an Kultur Leioan eta Topagunearen Udagoieneko Ostera egitasmoaren barruan. Oñatiko musikaria Auditoriumeko taulara igoko da *Hodeien azpian* bere hogeigarren diskoak abestiak jotzeko, baita aspaldiko kantuak oroitzeko ere. Beragaz batera izango dira oholtza gainean Arkaitz Miner (gitarra, mandolina eta biolina), Lutxo Neira (baxua) eta Hasier Oleaga (bateria). Eranaldia 21:00etan hasiko da eta sarrerak 10 euroan eros daitezke.

Info+: [www.ruperordorika.com](http://www.ruperordorika.com)

## IKASLEENTZAKO ZINEMA ETA ANTZERKIA

Aurten ere hasi dira ikasleentzako zinema eta antzerkiari buruzko programak. Herriko ikastetxeetako ikasleentzako dira: Kultur Etxeak eskaintza plazaratzen du eta ikastetxeek izena emoten dute gura duten ikuskizuna ikusteko, ohikoa baino prezio merkeagoan. Zinema zikloaren izena da *Iluntasuneko irudiak* eta ondoko filmak emongo dituzte: azaroaren 14an *Izarren argia*, eta abenduaren 18 eta 19an *Olentzero eta iratxoaren jauntxoak*. *Ikasgelatik antzerkia*, *antzerki handira* programaren baitan, barriz, *Hareazko ipuinak* antzezlan eskainiko du Markeliñek azaroaren 21ean.

Info+: [www.kulturleioa.net](http://www.kulturleioa.net)

**naturlan**

**Lorexaintza**  
zerbitzu orokorrak

Tf. 656 754 243

**BIZKAIA**  
irratia

**BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan**

F.M. 102.6 Mhz

[www.bizkaiairratia.com](http://www.bizkaiairratia.com)



Aktualitatearen alde ezberdinak  
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez doan!  
[sustapena@argia.com](mailto:sustapena@argia.com) - 943 37 15 45



## URKO MENDI TALDEAREN URTEERA KANPEZURA

Egun handia ospatuko du Urko Mendi-Taldeak azaroaren 11n. Egun horretan, Bizkaiko beste hainbat mendi taldeak batera (Algorta, Fruiz, Derio, Mungia...) txangoa prestatu dute Kanpezura. 07:30ean urtengo dira Sopelatik, autobusez, eta Kanpezutik Maeztura ibilbidea egin eta gero bazkaria egingo dute. Txangora joan gura dutenek izena eman dezakete batzokian jarritako zerrendan; txartelak 35 euroan.

## ERROMERIA UDALETXE-PLAZAN AZAROAREN 9AN

Dantza egin gura duzu giro euskaldun eta jatorrean? Bada, azaroaren 9an horretarako aukera izango dugu. Aitxu! euskara taldeak antolatuta duen erromeriari esker. Hitzordua 19:30ean jarri dute, udaletxe-plazan, eta dantza egiteaz gain, pintxoak jateko eta trikitiaz gozatzeko aukera izango dugu.

## SUKALDARITZA ETA TXALAPARTA GAZTETXEAN

Domeka Beroak abian jartzeaz gain, Sekeko Gaztetxean prest dituzte ikasturte barriko ikastaroak ere. Martitzenetan sukaldaritza ikastaroa eskainiko dute gazteek, 19:00etatik 21:00etara. Eguaztenetan, barriz, txalapartaren txanda helduko da, 18:00etatik 19:00etara. Parte hartu gura duenak bertara joatea besterik ez du, debalde dira gainera!

## MURAL POLITIKOEN III. TOPAKETA PREST!

Hirugarren urtez, Mural Politikoen III. topaketa antolatu du Plaza Beltza Kultur Gunea. 16:00etan mural margoketa kolektiboa egingo dute, eta 21:00ak aldera, kontzertuak gaztetxean: *Adaxs a nada* eta *Mitosis* taldeak. Horren ostean, Maiakovsky Dj-a izango dugu bazterrek giroten eta amaitzeko, ska-dantzaldia.

## Errimak, oinei jarriak!

**Bertsolaritza** oinarri duen dantza emanaldia helduko da Kurtziora **azaroaren 10ean**



Sarrerak sei euroan eros daitezke kultur etxean, udaletxean edo Sopelaren

**Bertsolariek** sentipen eta emozioak sentiarazten dizkiete entzuleei. Eta entzule horiek dantzariak balira? Zelan adieraziko lukete belarrietatik jasotako zirrara errimatua oinen bidez? Galdera horren erantzuna da Haatik dantza konpainiaren 'Errimak Oinetan' ikuskizuna, bertsolaritza oinarri duen dantza emanaldia: dantza barriak, bertsoei jarriak!

Ikuskizun barrizaille hau Sopelara helduko da azaroaren 10ean. Hitzordua 20:30ean jarri dute, Kurtzio Kultur Etxean, eta sarrerak daborduko eros

daitezke, sei euroan. Unai Elizasu eta Aiert Beobide dira ikuskizunaren zuzendariak, eta Sustrai Kolina bertsoen egilea (hasierako agurrak, bakarkakoa, taldetakoa eta puntutakoa). Bertsoak entzuteaz gain, 'Errimak Oinetan'-en hainbat kantu entzuteko aukera izango dugu, egile ezagunek egindakoak: Mikel Urdangarin, Katamalo, Aitor eta Jon Sarasua, Gu ta Gutarrak, Maddalen Arzallus eta Miren Amuriza. Eta noski, lehen mailako dantzariak ere izango dira: Aiert Beobide, Maitane Mujika, Onintza Odriozola e.a. o

**Sonia Gonzalez Garcia** > 'Emakumeak lan-munduan' hitzaldia  
"Emakumeek beti hartu dute euren gain Ongizate Estatuaren ardura"



Hitzaldiak 18:00etan hasiko dira, Itzarturen egoitzan

**Emakumeek** lan-munduan bizi duten egoerari buruzko hitzaldi-zikloa antolatu du Itzartu taldeak. Hitzorduek azaroaren 15 eta 29an izango dira 18:00etan Itzarturen egoitzan, eta Sonia Gonzalez aditu bilbotarra izango da hizlaria. —Lehenengo hitzaldian emakumeek **XX. mendean lan-munduan bizi zuten egoera izango duzue aztergai, ezta?** —Bai, gure helburua emakumeek lan-munduan bizi duten egoera agerian uztea da. Lehenengo hitzaldian kokapen orokorra egingo dugu, XX. mendea hizpide hartuta. Izan ere, egun bizi dugun egoerak hor du bere jatorria. Ikusiko dugu zelan etengabe lan-mundutik gu kanporatzen saiatzen diren, baina gu beti bueltatzen gara. XX. mendeko 80. hamarkadan emakumea lan-mundura sartu zela 'saltzen' digute, baina hori ez da erreala, beti egon gara mundu horretan, bai merkatu erregularrean eta irregularrean. —Eta hurrengo hitzaldian etorkizune-

ko erronkei buruz egingo duzue berba. **Zeintzuk dira, bada?**

—Lehenik eta behin azken urteotako eta egungo egoera aztertuko dugu. Azalduko dugu emakumeek beti hartu dutela euren gain Ongizate Estatuaren ardura. Baina emakumeak era masiboan lan mundura sartzen direnean, Ongizate Estatua desegin daiteke. Erronkak, bestalde, izan daitezke: oraindik heldu ez garen espazioetara heltzea (enpresetako zuzendaritzak adibidez), emakume bat

**«Lan-mundutik etengabe gu kaleratzen saiatu dira, baina beti bueltatu gara»**

lanpostu batera heltzen denean lanpostu horrek ez galtzea bere estatusa, egun ez dugun soldata berdintasuna lortzea e.a. Krisiaren eragina ere aztertuko dugu; harrigarria izan daitekeen arren, emakumeok hobeto eutsi diogu krisiari, lanpostuak aldi batekoak direlako, eta ezkutuko merkatuan lanean jarraitzen dugulako. o

## EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,  
etxera eroango dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

## DIDAK HAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Mota guztiak
- Ingelesa 3 artetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landu 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
info@didakhilton.com

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Elestetatasuna
- Esperientzia eta barikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email: sopela@ikastola.net

## OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA

Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4  
48600 Sopelana  
Tf. 94 404 74 20  
CITA PREVIA  
oinutsik@euzkadi.net



OINAK DITUZU  
ONGIZATEAREN  
ZUTABE, OINEZ  
EDONORA HEL  
ZAITZKEII

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Sanvari.

## GAZTELEKUKO TALDERIK ONENA: GUDA DANTZA!

Bere hamargarren urteurrena ospatzeko, egitarau potoloa prestatu du Gaztelekuak abendura arte. Irailaren 28an, barbarako, I. Musika Lehiaketa antolatu zuten, eta Guda Dantza talde algortarra izan zen irabazlea. Berangoko talde bik ere parte hartu zuten: Rusted eta Pre-ocupales. Gainera, Itxaso Paiaren bakarriketaz gozatzeko aukera ere izan zuten. Kontzertuen ostean, hainbat DJ izan zituzten gaueko 02:30 arte.

## MADRILEKO JOLAS PARKERA JOAN GURA?

Abenduaren 15 eta 16an ez baduzu planik... hasi motxila prestatzen! Gaztelekuak txango berezia antolatu du Madrilera jolas-parkera. 1994 eta 1999. urteen artean jaiotakoei zuzenduta dago, eta izena emateko epea azaroaren 23an amaituko da. Berangon errolatuta daudenek 65 euro ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek, 85 euro. Abenduaren 15ean 07:00etan urten eta hurrengo eguneko 23:00etan helduko dira.

## HERRIKO LANGABETUEN ASANBLADA SORTU DUTE

Herrian lanpostu duina lortzeko asmoz, Berangoko hainbat lagun elkartu eta Langabetuen Asanblada sortu dute. Martitzenetan 19:00ak aldera elkartzen dira Berangoeta Kultur Etxean, eta momentuz 15 kide baino gehiago batu dira. Parte hartu gura baduzu bertara joatea baino ez duzu.



## Goazen perretxikotan! Azaroaren 11n Perretxiko Egunaren XXII. edizioa ospatuko da, Gorosti taldeak antolatuta



Perretxiko Egunaren bezperan Sarriara urteera egiten dute urtero

**Udagoienagaz** perretxikotan joateko sasoiak hasi da, eta Uribe Kostako hainbat herritan azoka mikologikoak antolatu dituzte. Gorniz eta Plentziako hitzorduen ostean, Berangoko Perretxiko Egunaren txanda helduko da azaroaren 11n. Aurtengoa XXII. edizioa da, eta urtero legez, Gorosti Naturzale Elkarteak izango da antolatzailea.

Perretxiko Egunaren bezperan, baina, ohiturari eutsiz Sarriara urteera antolatu dute berangozarrek. Plan ederra prestatu dute: 08:00etan urteko dira autobusez herritik, perretxiko bila

joan, indaba-jana eta 18:00etan Gorbeia magaletik bueltatu eta perretxikoak sailkatuko dituzte frontoian. Urteera debalde da, eta joan gura duenak frontoian dagoen zerrendan eman dezake izena.

Domekan, barriz, aurreko egunean hartutako perretxiko-erakusketa eta debaldeko dastaketa egingo dute Sabino Arana kaleko postutxoetan. Eskualdeko beste elkarte mikologiko batzuek ere euren perretxikoak eroango dituzte. As-teburua biribiltzeko, bazkaria egingo dute Kukutxe Mendi txokoa. ◊

## Armintzako X. Sukalki txapelketa > elte artean

“Aurkezpena, gatza, eta zaporea, oro har, kontuan hartzen dira”



Sukalki txapelketako sari nagusia 1.500 eurokoa izan da

**Hamar urte** daroate armintzarrek San Tomaseko jaietan sukalkiagaz gozaten. Aurten ere, urriaren 20an lapiko artean ibili dira. Hasieran jende gutxi batzen bazen ere, gero eta jende gehiago hurre-ratzen hasi da; aurten, barbarako, 85 lagun batu dira. Hala, Sukalki Eguneko antolatzaileak egon gara gertatutakoaren barri eman diezaguten.

—Zer dela eta sortu zen Sukalki Eguna ospatzeko ideia?  
—Juan Jose Elordui Armintzako sukaldariak erakutsi zigun sukalkia egiten. Elordui eta Enrike Laradogoitia armintzarrek joaten ginen txapelketetara. Behin, Bermeoko sukalki lehiaketan bazkaltzen geundela, Juanjori okurritu zitzaion Armintzan txapelketa egitea, eta hurrengo urtean horrela egin genuen.  
—Nortzuk dira epaileak?  
—Gure nahia Bizkaiko sukaldaririk ospetsuenak ekartzeko da; horrela, txapelke-

tari garrantzia eman gura diogu. Halere, txapelketan parte hartzen duten guztiek ekarpen handia egiten dute; besteak beste, Marko, Kortezubiko alkatea, aurkezlea da, edota Kepa Landak zuzendari lanak egiten ditu.

### «Juanjo Elordui okurritu zitzaion Armintzan sukalki txapelketa egitea»

—Zein ezaugarri hartzen dira kontuan sukalkiak baloratu eta epaitzeko?  
—Normalean, hiru arlo hartzen dira kontuan; aurkezpena, okela eta pataten arteko erlazioa; gatz puntua; eta azkenik sukalkiaren zaporea.  
—Aurrerantzean, zein helburu?  
—Gaur egun bizi dugun krisia aintzat harturik, mailari, parte-hartzeari eustea ez dago batere txarto. Horrelako plate-rak egitea oso garestia da-eta; batzuetan, edonork ezin dezake parte hartu. ◊

**uk** zure publizitatea hemen!  
publiuk@aldizkaria.biz  
Tf. 944 911 337

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontia
- Periodontia
- PADI

Bilbain 27, 1. solairu osoan  
ALGORTA  
94 490 70 90

**COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A**

**Harritzeko moduko kalitatea!**

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriale
- Itsasentzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elkegai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industriak garbitzea
- Lan osogaria

Andres Isasi 11, Behe ezberria (Bilbo)  
Tf. 94 470 05 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com

**Garaizar**  
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 92 40 / 607 602 917 • garaizar@barrikuntzak.net  
Iturriz Kalea 11 • ALGORTA

**zaindu**  
Esku Terapia Zentrua  
Debatopelari - fisioterapia

**Ane Nafarrate Martin**  
Doctor Ianda 4, Sopela  
Tel: 946026779





# Arriluzeko ibiltariak

Paseoan sarri, korrikan beste batzuetan, bizikletaz noizean behin; modu askotan igarotzen gara Arriluzeko itsas-argiraino luzatzen den kailan. Egun osoan joan-etorrian dabilta ibiltariak, atsedetik ez; goizean, lasaitasun eske; iluntzean, izerdi egiteko asmoagaz. Ezin ditugu ahaztu, jakina, orduak zutik, edo eserita ondokoagaz berbetan egoten direnak, arrain zain; horiek bai, Arriluzeko zaindari finak.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





## 'Txoritxu' ontzia

iragarritako hondoratzea

Algortako Portu Zaharreko azken arrantza-ontzia laster agurtuko dute, bertako patroï eta armadore Roman Deustok erretiroa hartuko du-eta. 1985ean enkargatu zuen ontzia eraikitzea eta ordutik arrantzale ibili da beragaz. Orain, desmuntatzeko, lehenik ontzia hustu behar dute eta horretan ari dira Arriluzeko kaian; dana garbituko dute, metala eta olioak kenduko diote eta egurrezko egitura besterik ez dute utziko, azken agurra egin ahal izateko: itsasondoan lo hartuko du *Txoritxuk* betiko, itsaso barrura kostaldetik hainbat miliatara eroango dute eta bertan hondoratu. Horrela, azken bidaia egingo du Portu Zaharreko azken arrantza-ontziak, bizitzako bidaiarik luzeena: heriotzarena.

Asier Mentxaka

[berbetan]

Hilaren 16an Sopelan eskainiko duen kontzertuaren harira, rock musikariarengana jo dugu hainbat gairen inguruko gure jakinmina asetzearren. Ibilaldi luzea dauka euskal rock munduan Anari Alberdik (Azkoitia, 1970), bost helduleku horren lekuko: *Anari* (Esan Ozenki, 1997), *Habiak* (Esan Ozenki, 2000), *Anari eta Peti* (Metak, CD-EP; 2002), *Zebra* (Metak, 2005) eta *Irla izan* (Bidehuts, 2009). Bestalde, Lisabö, Inoren Ero Ni, Hotel taldeakaz batera BIDEHUTS diskoetxea osatu zuen 2006an.

# Anari Alberdi

## Rocka eta Barne Politika

Testua: **I. Sagarminaga eta M. Nerekan** / Argazkia: **Argazkipress**

—Gitarra eskuan, oholtza gainean, protagonista nagusi. Emakumea. Musika: rocka. Gipuzkoa sakonean zelan hartu zuten? Zelakoak izan ziren hastapenak?

—Bateria jotzen hasi nintzen talde batean. Agian, horretan bai egon zen nolabait teko harridura, gehien bat zaharren alde-tik... Esan ohi dut geu izan ginela pixka bat hainbat gauzei genero marka hori kendu genion lehenengo generazioa; bai, futboleko jokatzeko, ikastolako taldeetan... Baina, herri batean edozein harritzen da herriko beste edozein kantatzen hasten bada; mutil bat hasten denean ere, bat-batean herriko tabernaren batean kontzertua eskaintzean, denak harritzen dira. Neska izanda gehiago harritzen direla? Hori norberak jakin ezin duenez, egoera bietan, alderatu ahal izateko, ezin duenez egon... Beti, esaten dut nire bidea alde horretatik ez dudala markaturik sentitu; oso normal egin dudala, besteek ez dakit nola hartu duten, baina nik behintzat...

—Zentzu horretan, gaur egun egoera hori zelan ikusten duzu? Aurrerapauso-

ak emon direla esaten da, osterora in-dik, 'baina...' asko entzuten dira.

—Azken aldian asko entzun ari den gaia da; bai Ferminen pelikularekin, bai zenbait artikulurekin e.a. Batzuetan, halako paternalismo kutsu bat ere ikusten dut emakumeen gauzekiko-eta... Ni ez naiz asko identifikatzen askotan horietan egiten diren zenbait analisirekin. Kantatzen, jotzen hasi ginenetik, ni naiz aurpegia ematen duena, nire atzean lauzpabost gizon egon dira jotzen... Eta gu jotzen ari

**“Ez naiz eroso sentitzen egin diren zenbait analisirekin, (...) ez naiz batere identifikatuta sentitzen eta...”**

gara, piloa gainera, jende piloa etortzen da entzutera... Iruditzen zait, bai emakumea zenbait zeratan baztertuta dagoela, gehiago kostatzen zaiola, baina... Ez nuke nahi nire diskurtsoak tapatzerik emakumeak arlo pilo batean aukera berak ez dituen egoerak badaudela, badakit horrela dela; baina, ez zait ondo iruditzen beti emakumearen papera azaldu behar dugu-

nik biktima, ikusten ez dena, ezkutuan, bisibilitaterik ez duena bezala. Ez naiz eroso sentitzen, momentu honetan, egin diren zenbait analisirekin, ni ez naizelako batere identifikatuta sentitzen... Aurten arrakasta gehien izan duen kantuak ahots femeninoa izan du, Aiorarena, eta ezin da analisi bat egin ezkutuko ahotsei buruz eta Aiora aipatu! Faborez! Nahiko luke hainbat tipok aurten Aiorak eta bere bandak lortu dutena lortu! Orduan, uste dut analisi horietatik atera behar dugula pix-

ka bat... Ni ez nago horrela, ni ez naiz halakoa... Pixka bat arriskutsuak dira beti horrelako kontuak. Nik generoa konpartitzen dudanean jende batekin askoz gutxiago konpartitzen dut, generoa konpartitzen ez dudanean baino. Musikan, lehenengo musikari bat naiz, eta gero naiz tipa bat edo... Ematen du publikorik ez daukagunak, zokoratuta gaudenak, ema-










## Loruriko lekuko isilak

Itoiz Navarro argazkilararen honako irudiok Bilboko Loruri auzoaren hainbat aspektu barnebiltzen dituen proiektuaren atal bateko parte dira; izan ere, Navarroren birraitite-amama bertara heldu ziren XX. mende hasieran, eta irudi horien bidez hainbat bizipen eta oroitzapen ekarri nahi izan ditu egileak. Panpinak izeneko argazki-sorta honetan, protagonistek begiak, ahoa, eta belarriak dauzkate, eta urteetan auzoko kontuen lekuko izan dira; horietako testigu ugari, gainera, hirurogei urte baino gehiago dauka.

Argazkiak: **Itoiz Navarro**







**Biotopoa** > Lemoiz eta Barrika arteko gunen naturalak babesteko bidean

## Mendeetako lurra gordetzeko saiakera; inguru naturalen babesa

**Urteak igaro ondoren, azkenik, irailaren 3an onartu zen Uribe Kosta-Butroeko baliabide naturalen ordenantzari hasiera ematea. Plan horrek Barrika eta Lemoiz arteko zenbait eremu natural biotopo izendatuko dituzten erabakiko du, baita horiek guztiak nola kudeatuko diren ere.**



Barrikabason eraikitako etxeak

Uribe Kostako zenbait eremuren babesa aldarrikatzen ibili da urte luzeetan Txipio Bai talde ekologista. Haren lanak baita beste askoren lanek ere bultzatu dute Barrika eta Lemoizen arteko gunek babesteko gertuago egotea; horrela, esan bezala, irailaren 3an onartu zen biotopoa izendatu, eta horren kudeaketa zehaztuko duen ordenantza. Prozesu hori onartzeak dagoeneko babes-maila izatea ziurtatu dio zonalde horri; izan ere, dabordu-

ko ezin izango da bertan, orain arte suntsigarria izan dena egin: urbanizatzea, besteak beste. Bitartean, bertan dauden baliabide naturalen plana egiten ari dira

Eusko Jaurlaritzako teknikariak; euren erabakiko dute zein aldaketa egin behar diren proposatutako eremu-naturale-

### Lemoiz, Gorniz, Plentzia eta Barrika arteko 1.400 hektareek osatuko lukete biotopoa

an, Lemoiz, Gorniz, Plentzia eta Barrika artean zabaltzen diren 1400 hektareetako inguruan, hain zuzen ere. Jada, politikoki onarpen guztiak eman dira planagaz hasi, eta akabuan, biotopoa deklaratzeko; lehenengo, Barrikako udalean; ondoren, Bizkaiko Foru Aldundian; hirugarrenik, Eusko Jaurlaritzan; eta azkenik, Espainiako Gobernuak onartu zuen behingoz planarekin hastea. Orain, barriz, teknikarien esku dago biotopoa-



Barrikatik Lemoizeraino doazen itsalabar eta mendiak biotopo bidean

ren behin betiko onarpen eta zehaztapena; antza denez, luze joko du planak, Txipio Bizikoeak, barriz, urte bi baino gehiago ez luzatzea espero dute. Behin, teknikariak plana aurkeztu dutela, aldaketak egiteko asmoz, helegiteak egiteko aukera izango dute norbanako zein elkarteek; ondoren eta azkenik biotopoa

behin betiko onartzeko.

#### Babestu, baina, nola?

Biotopo izendatuz gero, naturagune bilakatuko litzateke aipatutako zonaldea. Horrek zera esan gura du: bertan egiten diren gauza guztiak kontrolpean egongo lirateke, esku-hartze oro zenbait kudea-

tzailearen begirapean egongo lirateke; hala, lekuan lekuko babes neurri ezberdinak hartuko lirateke. Baina, horrek guztiak xede nagusi bat izango du: gure arbasoek gordetako babestu, zaindu, eta oinordean uztea; betiere, baliabide naturalak errespetatuz, eta inguruan dagoen aberastasuna gordez.

Herriak zein zonalde urbanizatu, eta gaur egun urbanizagarri diren eremuak biotopoen eremuaren proposamenetik kanpo geratu dira; hortaz, nekazal zein

### Nekazal zein baso-lurrak dira biotopoa sortzeko kontuan hartu diren eremuak

baso-lurrak dira biotopoen proposamenen kokatzen diren eremu bakarrak. Zientifikoki biotopo bat baino gehiago egon badaitezke ere, horien guztien ardatz nagusia itsas-adarra da; horrez gain, Lemoiztik Barrikara doazen itsalabar eta mendiak, baita Arbina presagaina ere dira naturagunea osatuko luketen elementu garrantzikoak. Abian da, jada, horiek guztiak behingoz begirunez gordetzeko prozesua. ○

**Iñaki Ortigosa Egiraun** > Txipio Bizi elkartearen kidea

“Gaur egun, eta behin-behinean ezingo da sarraski gehiagorik egin; halere, aurretik eremu ugari suntsitu dira”

—Zelako ibilbidea egin behar izan duzue gaurko egoerara heldu arte?

—Gaurko egorak jatorria dauka orain 12 urte hasi genituen borroketan; Txipio eta Barrikabason eraiki nahi, eta eraiki zituztenean etxe eta azpiegiturak izan ziren kausa. Orduan hasi zen gure borroka eta hamabi urtez itxaron behar izan dugun epaile batek guri arrazoia eman, eta hori geldiarazi arte. Horrela, konturatu ginen kapitalaren asmo ustelak ez

duela mugarik, eta zer edo zer egin behar genuela hori behingoz gelditzeko; hala, zonalde hori babestearen aldeko lana egiten hasi ginen. Beraz, 90eko hamarkada amaieran Txipio Baiko kideok ikerketa egin, eta horren harira liburu, eta bideo bat argitaratu genituen; horietan azaltzen zen hemengo baliabide naturalen aberastasuna. Garai hartan inork ez zigun kasurik egin; alabaina guk orain dela hamar urte baino gehiago sortutako

asmoa errealitate bihurtzea lortzen ari gara; horretarako, askoren laguntza izan dugu: duela urte bi azken proiektua aurkeztu genuenean Bizkaiko talde ekologista eta naturalista guztien atxikimendua lortu genuen.

—Zelako lan zientifikoa egin behar izan duzue babesa behar duen eremua dela demostratzeko?

—Esan bezala, hasieran argitaratu genuen liburu hartan inguruaren ikerketa

zientifikoa agertzen zen; ondoren, lortu genuen Unibetsitateak ere ikerketa bat egitea; horretan, geologia, biologia, zoologia zein antropologiako adituak ibili ziren; txosten horrek arrazoia eman zigun. Azkenik, hirugarren bat ere eskatu zitzaion Madrilgo enpresa bati, eta horrek ere aurretik adierazitakoa berretsi zuen txostenaren bidez.

—Zonalde hori babestua ez egoteak zein kalte eragin dio?

—Legez kanpo egiten diren ekintza ugari eragin diote eremu natural horri; besteak beste, Barrikan egon ziren isurketa batzuen aurkako epaiketa hasiko da laster. Azken finean, guk geuk biotopo izateko mugatu dugun eremu hori, urteetan giza-

kiaren esku-hartzetik kanpo geratu izan den ingurua da; baina aurretik, eremu ugari suntsitu dira: Barrikabaso berbarako, bertan txaletak eraiki ziren-eta. Halere, horiek babestuak egon izan balira, ez zatekeen suntsipen hori gertatuko. Uribe Kosta-Butroeko baliabide naturalen ordenantzaren ondorioz, eta biotopoen izendapenaren ostean babesa integralagoa izatea lortuko dugu; eremu honen kudeaketa egiteko arduradun bat egongo da gauzak behar den moduan egin daitezten. Gainera, hemendik aurrera, behin-behinean ezingo dira sarraskiak egin; hori gutxi balitz, arduradunak eremuaren babesa eta zaintza izango du ardatz nagusia; inguru natural hori gordetzeko xede. ○





# BETIKO

IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezikuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Delitu eta Informa zaituz  
Tlf: 94 454 23 54  
94 454 33 07  
Fax: 94 454 22 05  
Helbidea: Artatza suzoa 84  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

# GAVRKO



GIZONENTZAKO  
MODA

Tel. 94 460 70 84  
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

## Dokumentalak aukeran...

**Genero ikuspuntutik memoria** historiko-ko eta **euskal diasporari** buruzko hiru lan



Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa laneko irudia

**Azken** asteotan hainbat euskal dokumental interesgarri aurkeztu edo ikusgai ipini dituzte; dela euskal nortasunaren gainekoa, direla memoria historikoari buruzkoa genero ikuspegitik. Aukeratu-tako hiruren barri emongo dizugu...

Lehenengoa, orain dela nahikotxo aurkeztu bazuten ere, oraintsu ipini dute sarean ikusgai oso-osoan. Txikitatik bilbotartutako Nuria Vilaltak (Iruñea, 1982) Euskal Diasporaren gaineko lana da *Guk*, euskal nortasunaren itsasoetan dabilena. Helburu nagusi Euskal Herria maite dutenak elkartzea du, eta elkar ezagutzea. 60 minutu pasatxoan, oro har Argentinan, Uruguain ere, bizi diren euskaldunen berbak, historiak eta iritziak jasotzen ditu. Kanpo diru-iturririk izan ez dutenez, ekarpenak egiteko aukera ipini dute sarean.

Gero, 36ko gerrako eta osteko bizi-penak andrazkoen ikuspuntutik aztertzen duten dokumental bana filmatu dute Ahaztuak eta Intxorta 1937 elkar-

teek. Emakumeen papera, egitekoa eta historia itzalean lotu zen orduan, eta ahots horretatik jasota testigantza gitxi jaso dira gaur arte. Alde batetik, *Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa* lanean Arrasateko 16 emakumeren eta gizon baten (amaren kontakizuna) lekukotasunak batu dituzte Intxorta elkar-

**«Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa, Guk eta Emakumeak gerrako babesleketan...»**

koek. Bestetik, Ahaztuak 1936-1977 elkar-teak eta GITE-k (IPES) *Emakumeak gerrako babesleketan, Bilbo Handian* lana hil honetan aurkeztuko dute. Pertsona zibilen lekukotasunak jaso gura izan dituzte, oso urria delako, eta gehienak emakumeak ziren; Bilbo Handiko 50 andra elkarriketatu dituzte. ○

Info+: [vimeo.com/50797487](http://vimeo.com/50797487)  
[www.intxorta.org](http://www.intxorta.org)  
[ahaztuak1936-1977.blogspot.com/es/](http://ahaztuak1936-1977.blogspot.com/es/)

## Banden Lehia martxan

Musika talde amateurren lehiaketan **izena emoteko** epea **hilaren 14an** amaituko da



Banden Lehiako kartel-iragarlea. Finala hilaren 30ean izango da, Bilborocken

**Banden Lehia** “interneten nahiz finalean zuzeneko kontzertua eskainiko duen musika bandarik entzutetsuena sarituko duen txapelketa da”. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak antolatzen duten ekimena da, eta BBK, Azkue Fundazioa, Last Tour International eta Baga Biga diskoetxearen babesak dauka.

Lehian parte hartzeko antolatzaileek baldintza bi ipini dituzte: musika talde amateurra izatea (gehienez disko bat ekoizita) eta gutxienez abesti bi euskaraz izatea. Osterantzean, lehiaketa atal bitan banatzen da: lehenengoa, bandek *ban-*

*dabeat.com* webgunearen bidez izena emon beharko dute, bertara aukeratutako kantak erantsiz, eta bisitariak gogokoen dutenen aldeko botoa eman beharko dute; azkenean, puntuaziorik handiena lortu duten banda biak sailkatuko dira. Horrez gainera, musika munduan zer esana duten Ritxi Aizpuru, Peio Reparaz, Pablo Cabeza eta Last Tour Internacional-eko kide batek osatutako epaimahaiak finalean parte hartuko duten beste bi banda aukeratu dituzte. Finala zuzenean izango da, azaroaren 30ean, Bilborocken. ○

Info+: [www.bandenlehia.com](http://www.bandenlehia.com)

## kontzertua > Anari Sopelan

Musikari azkoitiarrak zuzeneko kontzertua eskainiko du Sopelan hilaren 16an, barikua. Kurtzio kultur etxean izango da emanaldia, 21:00etan. Sarrerak 5 euroan daude salgai (Larrabasterrako Sopelaren bulegoan, udaletxean eta kultur etxean bertan eros daitezke). *Ira izan* azkeneko diskoko abestiak aurkeztuko ditu Sopelan, besteak beste. UK-ren zenbaki honetako *Berbetan* atalean (30-33. orrialdeetan) berari egindako alkarrizketa irakur dezakezu, sorkuntza-iturriak, letrak, emakumezotasuna, rock-a, Bidehuts zigilua eta proiektua, eta beste hainbat konturen gainean jardun dugu gitarra jotzaileagaz eta abeslariagaz.

Info+: [www.anari.net](http://www.anari.net)

## kontzertuak > Becatu festibala

BEC-ak nazioarteko jaialdi edo kontzertu andana hartzen dituela, eta euskal musikari dagokionez, ezer gitxi egin dela eta... Euskal taldeak ere BEC-a betetzeko gai direla eta horrelako guneak ere merezi dituztela aldarrikatzeko antolatu ei dute Becatuak festibala. Abar Produzioak-ek antolatu du ekimena eta Bizkaiko zenbait erakunde publikoren eta pribatuen laguntza du. Hilaren 10ean izango da eta Zea Mays, Zuloak, Berri Txarrak, Esne Beltza eta Willis Drummond taldeek joko dute. Ateak 18:00etan zabalduko dira, eta zuzeneko emanaldiak 19:00etan. Sarrerei dagokionez, aurretiaz erosiz gero 17 euroko prezioa dute, eta egunean bertan 20 euro.

Info+: [www.becatu.com](http://www.becatu.com)

## diskoak

**Zorion Argiak**  
Betagarri  
Elkar



Disko bikoitza plazaratu du talde arabarrak oraingoan. Estudioan grabatua eta 23 kantuz osatzen den lan honetan Tonino Carotone, Gari, Pirritx eta Porrotz, El Drogas, Iñigo Muguruza, Mikel Urdangarin, Virginia De La Casa, Francis, Juan (Soziedad Alkoholika), Xavi (Obrint Pas), Kutxi (Marea), eta beste hainbat abeslariak parte hartu du.

**10 Trio biolin, piano...**  
Joserra Senperena  
Hotsak



Zinerako musika idatziak eta orkestrarako egindako moldaketek bultzatu dute Senperena musika beste era batean sortzen. Doinuak hartzen du protagonismoa eta hiru instrumentuen arteko elkarriketa musika klasikora gerturatzeko da *10 trio piano, biolin eta akordeoira*ko lana, ganbera musika egitasmoa.

**My time**  
The Romantics  
Errabal jazz; Hotsak



Orain dela bizpahiru urte ekin zion biderei Iker Piris tolosarra buru (gitarra eta ahotsa) eta Xabier Barrene-txea (baxua), Hilario Rodeiro (bateria) eta batzuetan Paul San Marti (pianoa) kide dituen taldeak. Lehenengo disko honetan blues, r&b, soul, swing, 60-70. hamarkadako funk, rock and roll eta gospel doinuez osatutako kanta eta bertsiok jaso dituzte.



Getxoko Andra Mari  
Gasolindegia

Txartel hau  
aurkezten baduzu  
**%50eko**  
deskontua  
izango duzu zure  
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00  
(15 eguneko epemuga)

**I**

**Iñaki Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES, TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Vilanova plaza 3 Tf. 94 430 23 46  
Teléfono 1 Tf. 94 430 27 41

**Algorta**

[literatura]

## Literatura Unibertsala

Bildumak **aro barriari ekin** dio, argitaletxe barriakaz eta **itzulpen biren** aurkezpenagaz

**Literatura Unibertsala** bildumak, nazioarteko literatura euskarara ekartzeko asmoz sortutako sailak, ibilaldi barria hasi du, kide barriakaz eta argitalpen biren plazaratzeagaz. Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte (EIZIE) arduratzen da bildumaz, Eusko Jaurlaritzagaz batera abiatu zuen ekimena orain dela 23 urte, eta dagoeneko 153 lan itzuli dira sailaren barruan. Hasierako 100 liburuak Ibaizabal argitaletxeak kaleratu zituen, ondorengo 53ak Alberdaniak eta Elkarrek alkarlanean argitaratu zituzten. Joan den urtean, bidean dauden Bildumako hurrengo 50 itzulpenak nork emongo zituen argitaratu erabakitzeke lehiaketa egin zen, eta Alberdania, Erein eta Igela argitaletxeek lortu zuten esleipena.

### «Jamaica Kincaid-ren eta Herman Melvilleren lanak euskaratu dituzte»

EIZIE-ko arduradunek azaldu dutenez, Bilduma unibertsalagoa egiteko asmoa dute, «bai geografikoki, bai generoari dagokionez, eta baita denboran ere».

Hala, dagoeneko argitaratu dituzte idazle biren lanak: *Nire amaren autobiografia* (1995), *Benito Cereno* (1855) eta *Billy Budd, marinela* (1924). Lehenen-



Jamaica Kincaid

goa, Jamaica Kincaid-rena (Antigua uhartea, 1949) da, literatura postkolonialaren ordezkari ezaguna da, eta bere lanek kolonialismoaren kritika izan ohi dute oinarri. Kincaid-ren liburuak Alberto Martinez de la Cuadrak ekarri du euskarara. Azken biak, Herman Melvilleren (New York, 1819-1891) eleberririk labur bi dira, kasu honetan, liburu bakarrean argitaratu dituzte eta Jose Ramon Vazquezek euskaratu ditu. Aurten beste bi liburu argitaratuko dituzte: Calderon de la Barcaren *La vida es sueño / Bizitza amets* (Xabier Paya) eta Alain Fournieren *Le grand Meaulnes / Meaulnes handia* (Monika Etxeberria). ○

liburuak



**Ezequiel nora ezean**  
Jasone Osoro  
Elkar

Ezekielele 15 urte ditu, lagunarte jator bat, neska-lagun moduko bat... Bizitza zoriontsu hori aldatu egingo da, ordea, inoiz ikusi ez duen aita bat-batean agertzen denean: ezagutu nahi luke, baita alde egin izana aurpegiatu ere. Horrez gain, beste hainbat arazo ere baditu...



**Alter ero**  
Bertol Arrieta  
Susaa

Zarauztarraren ipuin-liburu barruko ipuinetako lagunak durduza suerte batek hartu ditu, zorabioaren mugan daude, nahasmenduak euren zainetan bidea egin eta portaera aldrebesturik. Nahasmendu egoeratik ondorioztatuko dira hamaika pasadizo eta gertakari...

[kirola]

## Ur-jarduerak familientzat

Getxok abiatu du **doako ur-jardueren denboraldi** barria herriko kiroldegietan



Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

**Ur-zaleak** ei gara eta gustura egon ohi gara uretan. Getxoztarrek ondo dakite hori eta, beste behin ere, doako ur-jarduerak antolatu ditu Getxo Kirolak elkarteak asteburuetarako, Fadura eta Gobela kiroldegietako igerilekuetan.

Umetxo, haurdun eta familiei zuzenduta daude jarduerok eta helburua dute haurdun dauden emakumei, umetxoei eta familiei eskaintzea osasunera eta aisiara bideratutako oinarritzko irakaskuntza, «ondoren euren kontura praktikan jar dezaten». Hilabete bakoitzeko azkeneko asteburuan egiten dira; beraz, hilabetero aukera dago izena-emoteko asteburu zehatz baterako, igerilekuak erabat bete arte.

Haurdunen kasuan, haurdunaldiko 24 aste bete dituzten emakumeentzat dira jarduerak eta, erditutako kasuan, erditu eta 40 egun igarota dituztenentzat, arretra moduan. Gobelan egiten dituzte dagoen zapatuan, 9:00etatik 9:45era.

Umetxoentzako jarduerak ere zapatuetan izango dira Gobelan: sei hilabete eta

urte bi arteko umeentzako igeriketa da emoten dena, talde bitan banatuta, 9:45etik 10:35era. Gainera, 2 eta 3 urte arteko umeentzako taldea sortu barri da, 10:35etik 11:00etara. Saiotara eroan behar dira: bainu-txanoa, uretako oihala, bainujantzia eta flotatzen duen jostailua.

Bestalde, Fadura kiroldegian egiten

### «Gobelan zapatuetan dira ur-jarduerak eta Faduran domeketan»

dira jolas bidezko jarduerak, domeketan eta 10:00etatik 11:00etara. Jarduera horietan parte hartu dezakete 4 urte beteta dituzten umeek, baina gutxienez pertsona heldu batez joan behar dute. Izena emoten duten lagunak gozatu ahaliko dute ur-zirkuituagaz eta jolas, aquagym, waterpolo, koltxoi eta gymkanagaz.

Ekintzotan parte hartu gura dutenek izena emon dezakete Fadurako (94 430 80 70) edo Gobelako (94 404 51 51) jendearentzako arretra bulegoetan. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**KANXA KIZOL moda**



**350 m²**  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris, s.l.**



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

**Izaro Fernandez Ugarte** > Viborg (Danimarka)

“Ezinbestekoa da uneoro euritakoa aldean eroatea!”

Katuak kalean legez, uribekostar asko dabil munduan “galduta”. UK-ren lagunak dira batzuk eta beren ibileren barri emoten dugu txoko honetan eta, oraingoan, Danimarkako Viborg hirian dagoen algortar bat dakargu: **Izaro Fernandez Ugarte**. Aurtengo Portu Zaharreko jaien ostean korrika batean prestatu zuen maleta eta, konturatu orduko, hegazkinean igota zegoen Fernandez, abentura barria bizitzeko asmoz. Erasmus bekari esker joan da Viborg-era, psikopedagogiako azken maila ikasten ari da-eta. Lurralde hotzera alde egin du, bere irriaz epeltzera hango txoko danak.



Erasmus egiteko hainbat herrialde eta unibertsitatetako programak aztertu zituen Izaro Fernandez Ugartek eta, azkenean, Viborg-era (Danimarka) joan zen.

#### Zer bisitatu

Danimarkako hiririk zaharrenetarikoa da Viborg, eta eraikinek herri itxura ematen diote: egun bakarrean ikus daiteke. Laku handiak ditu, inguruetan paseatzeko eta kirola egiteko. Horregatik, herrialde honetako beste leku ikusgarri batzuk bisitatzeko ezinbestekoa da; adibidez, Greenen ingurua: Danimarkako punturik altuena da, eta Baltiar eta Ipar itsasoak nola elkartzaren diren ikusgarria da oso. Fokaren bat hurbil daiteke zugana, argazkian ateratzeko asmoz.

#### Harritzeko modukoa

Copenhagera egindako bidaiatxoa, hauteskundeak zirela-eta: hiriburuko

espainiar enbaxadara joan zen botoa emotera eta pare bat euskaldun topatu. Harrituta geratu zen, baina bertako langilea are harrituago zegoen; izan ere, jende euskaldun mordoa hurbildu ei zen kontu beragatik. Zoratuta zeudela esan zien, barreka, bertatik urrun dauden hiri eta herrietatik haraino joan nahiaz, botoa emoteko asmoagaz. Harrigarria ei da ere zeinen “patriotikoak” diren. Antza, Danimarkako bandera etxe eta eraikin askotan daukate zintzilikatuta eta edozein ospakizun ona da hura ateratzeko, bai urteak, bai hiletak ospatzeko ere!

#### Ezinbestekoa eta ezinezkoa

Ezinbestekoa da euritakoa beti aldean eroatea, badaezpada ere! Ezinezkoa ei da, barriz, daniera hizkuntza. Oso zaila dela dio Fernandezek, bereziki ahoskera. Errazena eskerrik asko esatea: *Tak!*



#### Nor da

**Nongoa**  
Algortakoa  
**Adina**  
24  
**Zertan dabil**  
Ikasten, Erasmus programaren bitartez  
**Ikasketak**  
Atzerriko hizkuntzako irakasle da eta psikopedagogiako azken urtea ikasten dabil  
**Zenbat denbora Viborg-en**  
Lau hilabeterako joan da Danimarkara, abendura arte

#### Non dago

**Lurraldea**  
Danimarka  
**Hiria**  
Viborg, Kopenhage hiriburutik 215 km-ra; bere eskualdeko hiriburua: Erdialdeko Jutlandia  
**Kokapena**  
Danimarka erdigunean  
**Azalera**  
1.474 kilometro koadro  
**Biztanleria**  
37.635 pertsona  
**Hizkuntza**  
Daniera  
**Dirua**  
Koroa danimarkarra  
**Erljioa**  
Luteranoa oro har

## Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko [www.euskalherrikomitologia.com](http://www.euskalherrikomitologia.com) webgunera jo.

# Mari.

## Euskal jainkosa nagusia

**Aurreko atalean esan genuen moduan, euskal mitologiaren pertsonaiak ezagutzeko jentilen aztarnen atzetik ibiliko gara, beraiek baitziren desagertzear zegoen arraza zaharraren ohiturak gorde zituzten azkenak. Eta horretarako ez dugu oso urrutira joan behar, izan ere, Uribe Kostan badugu haien arrastoa, bai. Gorliz herrian Jentilkoba dago. Bertatik aterako dugu jakinduria herrikoia zuentzat. Horretarako, nola ez, burutu behar dugun lehengo pausua Mariri baimena eskatzea da. Baina... zein da Mari?**

Sorgina, dama, andra... Izena herriz herri alda daiteke, baina guztiontzako bera da euskal jainkosa nagusia. Gure geografiako toki ezberdinetan bizi da, normalean mendi tontorretan kokatzen diren kobazuloetan. Zazpi urte egiten ditu bere bizitokian, hura utzi eta beste haitzulo batera joan aurretik. Bidaia-tzerakoan bitarteko ezberdinak erabiltzen ditu, nahiz eta ohikoena zerua zeharkatzen suaz inguratuta edo ahari baten gainean ikustea den.

Gainerakoek bera ikustea uzten duenean, oso dotore janzen den emakumea da. Eta liluragarria, izugarri polita, begirada bakar batekin maitemintzen gaitu eta. Justizia banatzen du guztien artean berdinki. Denbora iruntzen pasatzen zuen Marik, urrezko hariarekin kasu askotan, bere kobazulo sakonenean. Han, esaten denez, altxor eta ondasun ugari zituen, eta makil ustel, harri eta abar bihurtzen ziren haren baimenik gabe kobazulotik ateraz gero. Haren

aurrera aurkezten diren pertsonak hikaz hitz egin behar diote, eta, haitzuloa uzterakoan, atzerantz ibiliz egin behar dute, jainkosa handia sekulan begi-bistaz galdu gabe.

Aditu batzuk uste dute Mari feminitatearen irudikapena dela, garai bateko ernalketaren jainkosaren biziraupena euskal lurretan, gainerako izaki bizidunak sortzen diren ama lurra.

#### Kondaira

Kondairak dioenaren arabera, Muntzaraz jaunak Ibon izeneko seme bat eta, ondoren, Mariurrika alaba izan zituen ondorengo gisa. Mutikoak, zaharrena zenez, gurasoen etxea eta jabetzak hartuko zituen oinordetzan, eta, horregatik, Mariurrikaren gorrotoa jasotzen zuen.

Egun batean, neskatoak txango bat antolatu zuen, eta bertan berak, anaiak eta neskame zahar batek parte hartu zuten. Hirurak Anbotora joan ziren, eta jan eta ardo ugari edan zuten, batez ere

**«Izena herriz herri alda daiteke, baina guztiontzako bera da euskal jainkosa nagusia»**

Ibonek. Azkenean, lozorroak gailenduta, mutikoa lo geratu zen. Mariurrikak une hori aprobetxatu zuen haren gorputza bultzatzeko eta amildegian behera botatzeko, neskamea distrahituta zegoen momentu batean.

Biak Muntzarazera itzuli ziren, eta Mariurrikak, goibel, gurasoei esan zien anaia zorizko eroriko baten ondotik erori



Mari. Ilustrazioa: Daniel Castello

zela, eta bietako inor ez zela eroriko hori saihesteko gai izan.

Horrela hainbat egun igaro zen; neskatoaren kontzientziak, ordea, ezin zuen gertatutakoa ahaztu eta atsedetik gabe leporatzen zion egindakoa, behin eta berriro, lasaitasunez lo hartzea galaraziz. Apurka gero eta isilago egon zen, gero eta zaputzago, gainerako pertsonetik harremana ere saihestuz. Eta horrela, gau batean, inori ezer esan gabe, neskato gaztea desagertu egin zen.

Ordudanik, airea zeharkatzen edo izena ematen dion tokitik gertu oinez ikus daiteke, izan ere, ordudanik Anbotoko Dama bezala ezagutu ohi dute. ○



[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



**portu zaharra bar**  
 Partu Zaharra kalea 25  
 48991 Algorta - Gurea (Bizkaia)  
 Tf. 94 460 20 33  
 portuzaharra@portuzaharra.com  
 www.portuzaharra.com



**SOLAETXE**  
 Egurako menua      **Jatetxea**      Karta  
 Asteburuako menua      Oilaako erretoria  
 Sarriena sateak 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 451 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



**La Triangu.**  
 Arriatara 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



**berezi**  
 Hamburgesak      Ogitartekoak  
 Sanwichak      Plater kombinatuak  
 SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO  
 ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



**BODEGUILLA BUTRON**  
 Bidabitarte, 4 y 5 - Algorta (Gtxo)  
 94 430 01 74  
 www.bodeguillabutron.com



**txakoli mota gane Tx. txakolina**  
 Ibañeta 34 (Alkazaranda Parke) Gohierribarria  
 Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



**UNAI TABERNA JATETXEA**  
 C/ Alagonbarri n.º 3 C.P. 48991 Algorta Tf. 94 466 16 61



**Asador Cervecera**  
 Andres Larrañabal 5. 48930 Arcena - Getxo  
 Tf. 94 608 51 34 - Muz. 609 44 08 80



**JEN TOBI**  
 Egurakoa menua  
 Menu bereziak  
 Karta  
 Emortak  
 94 476 2389  
 607 21 89 61  
 LUTXANA-ERANDIO



**GURE ETXEA taberna**  
 HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
 Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



**Asador Cervecera BERANGO**  
 Oilaako erretoria, indakak, txakolina, arrainak txingarratzen  
 Menu bereziak onkarguz - Gabonetako Menu bereziak  
 Pello Añada, txakolina, txakolina, txakolina a la brasa Menu bereziak per onkarguz Menu bereziak txakolina  
 EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erretoria 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:  
**94 491 13 37**  
**publiuk@aldizkaria.biz**

[pintxotan]

# Kalabaza tortilla

sasoiko produktua protagonista



Kalabazaren gozotasunak izaera handia emango dio tortillari

**Ohiko produktua** daukagu patata-tortilla; oraingoan, baina, Portu Zaharra tabernako tortillak badauka sasoiko berezitasuna: kalabaza. Inoiz tortilla egiteko kalabazina erabili baduzu, oraingoan, familia bereko beste produktua tartekatzeke beta izango duzu. Bada, kalabazaren gozoak sekulako izaera emango dio tradizio handiko tortillari. Hasteko, eta beste tortillakaz bezala, tipula sutan jarriko dugu, hori behin gorritu dugula patata zatitu eta zartaginera botako dugu. Patata hamar-hamabost minutuz sutean egon denean, orduan, kalabaza zatituta botako dugu; izan ere, kalabaza askoz azkarrago frijitzen da, eta ez du patatak besteko denbora eskatzen. Gainera, kontuan hartu behar dugu kala-

bazak ur nahikotxo botako duela, eta hobe dela ur hori akabuan botatzea. Hortaz, kalabaza eta patata sutan mantenduko ditugu. Behin eginda dagoenean, sutatik kendu, eta ura zein olio kenzeko ondo-ondo xukatuko dugu. Ondoren, arrautzak irabiatu, eta patata eta kalabazagaz batuko ditugu, gatza bota, eta ohiko tortillan legez, zartaginera bota, eta bueltak emango dizkiogu eginda egon arte.

Horrelaxe, ohiko jaki gozoa baztertu gabe, aukera izango duzu hura barritu, eta inoiz dastatu bako zapore bereziagaz gozatzeko. Kalabazagaz ohiko platerak barrizatzen ausaruko al zara? o

**Osagaiak: patatak, arrautzak, kalabaza, tipula, olio, gatza**






**JUAN-MARI**  
 Harategia eta txarkuteria  
 LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25  
**AREETA**



**KONTXI ZUAZUBISKAR**  
**URDAITEGIXA**  
 Adituak gara, Urdolazpiko Iberiko.  
 Pate eta Gaztaletan!!  
 Alagonbarri 10, ALGORTA  
 Tf. 94 491 02 93



**TXIBERRI**  
 edantokia  
 frontoi partikularra  
 Aita Gotzon 4, URDULIZ  
 Tf. 94 676 07 15



**Taberna Berrí**  
 Sanikobasa 4 -ALGORTA  
 Tf. 94 430 64 93

**ITXASGANE**  
prentsa • aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Aldizkariak z.g. • TEL: FAX: 94 491 53 21  
ALGERTIA • GETXO

**Zure publizitatea hemen**

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

**Tf. 94 491 13 37**  
**publiuk@aldizkaria.biz**

**GOIZEAN**

"Gozaki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"  
Prentsa - Fruita: lehokak - Akibiziak - Lixareriak  
Onduñu Mandatua 1 T. 94 430 22 13  
T. 94 460 02 88  
GETXO ALGERTIA

**Zurikaldai**

JOMIN ZABARRE BAYO K/5072 BAYO 42886922  
Hegabeko 11/10/2010 Zuzendariak: 44  
T. 491 14 87 Berriz, Leku: 48901 01 92  
48900 NEGOTI 48901 01 92

[horoskopoa]

**URA**



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Eguzkizalea zara oso, baina, jakin badakizu, orain euri eta hotzerako sasoi dela. Kariberako bidaiaik merke-merke daude, hartu hegazkina eta zoaz berotzera!

**OTSOA**



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Lan baterako elkarriketa egingo dizute eta oso pozik urtengo zara handik, baina egunak joan, egunak etorri ez dizute deitu. Patxadaz hartu itxaronaldea eta eutsi goiari!

**ADARRA**



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Inguruko danak enamoratuta dabilta eta zu ere kutsatu zaituzte azkenean. Baina birusa indartsuegi sartuko zaizu gorputzean eta danen atzetik ibilikio zara.

**AITZURRA**



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Udan surf egiten ikasteko gogoagaz lotu zinen, ikastaroan tokirik geratzen ez zelako. Orain, barriz, negua datorrenez ez duzu busti gura. Beti badaukazu aitzakiaren bat!

**HOSTOA**



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Udazkeneko haize zurrunbiloek alde batera eta bestera mugitzen zaituzte, hosto, nora zoazela ez dakizula. Heldu egiozu ondo enberrari eta ez utzi haizeak eroan zaitzan.

**EGUZKIA**



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Diruagaz lotutako amesgaiztoak izango dituzu egunotan: batzuetan faltan, besteetan soberan. Bila egizu beste zaletasunen bat, diruak ez du-eta emoten zorientasuna.

**GARIA**



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Loteria, kupoiak, zozketak... zenbat diru xahutu duzu aurten horrelakoetan? Lasai zaitetz, Gabonak datoz eta jakin badakizu zer datorren: tentuz ez bazabiltza soldata osoa xahutuko duzu.

**LASTOA**



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Goizean ohetik jaiki eta txoriaren kaiolaren atea zabalik ikusiko duzu, eta kaiola hutsik. Tristetu arren, jakin badakizu bakarrik hegan egin behar duela, libre izango bada.

**IRATZEA**



(Abuztuak 18 irailak 16)  
San Martin egunez familiagaz bazkaltzeko elkartzeko zara, urtero legez. Bapo jan eta edan, eta ederto pasako duzu. Baina biharamunean tripako mina: zenbat pisatzen zuen, bada, txerriak?

**META**



(Irailak 17 urriak 16)  
Ikasi eta ikasi, besterik ez daukazu buruan. Irakasle horrek lan gehiegi emoten ditu. Hartu atsedean apur bat, daborduko apunteetako orrien kolore horixka hartu duzu-eta.

**HAZIA**



(Urriak 17 azaroak 15)  
Bihar ere mendira, eta etzi, eta etzidamu. Gorbeiko inguru osoa perretxiko barik utziko duzu laster batean. Gaur zer tokatzen da: arrautzopila edo onddo-kroketak?

**NEGUA**



(Azaroak 16 abenduak 20)  
"Zu zara nire iturriaren ura bezalakoa, zu zara nire etxeko sua bezalakoa...". Abesti ezaguna ahotan darabilzu uneoro, egin euri zein hotz. Zer zabilta, enamoratuta ala?



Kopiak  
**SALGAI**  
UK aldizkariaren  
bulegoan




Uribe Kostako  
aldizkariaren  
ekoizpena



## denborapasa

## HITZ GURUTZATUAK



## LUMA aldizkariaren eskutik

## Ezker eskuma

1. Bizkaitar eta arabar askoren eta gipuzkoar ez gutxiren udazkena. 2. Gartsu, sutu. Errusiako ibai handia, luzeran Europako laugarrena (1.950 km). 3. ... egin, goitik ari. Aseak. 4. Bizkaitarren soldata edo sari. Bigarren bokala. 5. Europako hego-ekialdeko estatu bateko hiriburuko. 6. Fosforo balio du. Abestia. 7. Emakumezalea, neskazalea, gonazalea. Lehenengo bokala. 8. Gironatik igarotzen da ibai hau. Zilarren ikur kimikoa. Autore edo egile bihurtzen zaitu atzizki honek. 9. Hainbat osagai berdintsuz osatuak dira.

## Goitik behera

1. Ematen ez badu ere, bidaiaria da sukaldaritzan estimu handia duen hegazti mota hau. Gogoa, nahia, irrika. 2. Aspaldiko diru. ... egin, agindutakoa bete. 3. Bahearen erdian. Landare lekadun. 4. Helduko diren oporrak. Azkenekoa. 5. Pluralean, belar landare urrintsua, janari ongailu gisa erabilia. 6. Bokalik meheena da. Lekuko. 7. Eder edo ederrago bihurtua, edergarri hornitua. 8. Joaki naiz. Bokal errepikatua. Musika mota, eskalan seigarrena. 9. Kru-del. 'Korrika'-ren antolatzailea.

## Soluzioa



ez horren gaztetxoak &lt; bilatu eta irabazi &gt; gaztetxoak

Zer izenburu dauka Jokin Etcheverriaren dokumental barriak?

> Aurrekoaren erantzuna: Aldapa auzoa, Getxo

> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik**

\*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Argia**  
astekariaren biru bilabeteko  
harpidetza doan



Zer egongo da hilaren 23tik 25era Getxon?

- **Bideo-azoka**
- **Komiki-azoka**
- **Aza-azoka**

> Aurrekoaren erantzuna: Berangokoa

> Irabazlea: **Maria Barrena**

\*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Argia**  
Atxagaren 'Astakiloen abenturak'  
ipuin bilduma



Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



SAN NIKOLAS LEBURUTEGIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

## ALGORTAKO ARISTEGI FARMAZIA, 1965

**Jesus Aristegi Sarriak** ireki zuen Algorta erdian, Juan Bautista Zabala kaleko 1. zenbakian, bere abizeneko farmazia, 1925eko uztailean. Bere semeak, Jose Luis Aristegik (2010eko abenduan hil zen), jarraipena eman zion eta honen alabak, Elena Aristegik (1995etik bertan lanean), gaur egun darama farmaziaren ardura; hirugarren belaunaldikoa, beraz. Argazkikoak ez dira Aristegi familiartekoak. Erdian dagoena, bata zuriz eta gorbata beltzez, Jose Mari Turrez da, farmaziako langilea; bere ondoan daudenak, Julio bere semearen (argazkia atera zuenaren) lagunak. Igandea zen eta aita "de guardia" zegoenez, bisitatzea joan ziren. ◯

**Ezkerretik hasita:** Patxi Bareño, Jose Mari Turrez (GB), Javi Urrutia

**\*OHARRA:** UK 220 zenbakian, 53. orrialdeko Flashback ataleko argazkian emon genuen informazioa guztiz zuzena ez dela azalduz mezua bidali digute Txorierriko AEK-ko Txepetxa euskaltegitik. Jakinarazi digutenez, "Sondikan ez dago Santa Luzia auzorik ez jairik ere; Sondikan S. Joanak izan ziren erromes estiloan etortzen ziren eguna. Baina ondoko herrian Loiu, hain zuzen ere, badago Santa Luzia jaia (S. Pedro ostean ospatzen dena) ekainaren 30ean eta leku askotako erromesak etortzen ziren gurdiak apaindu eta eguna pasatzera. Gaur egun, ohitura polit hori, galduta dago. Halandaze, uste dugu Loiura etorriko zirela, Bilbotik ere autobus ordutegi bereziak egoten ziren egun horretan".

**ITZIAR ATIENZA** > aktorea

# “Etxean xagu esaten zidaten, txikia eta kurioso nintzelako”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **EITB**



**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

Istorio eta pertsonaia apasionanteak dituen edozeinetan.

**Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?**

Baseri batean animaliz eta naturaz inguratuta, hori delako orain ez daukadana. Baserrian egongo banintz aktore izan nahiko nuke!

**Eta zertan ez zenuke jardun gura?**

Argi eta garbi: armadan.

**Zer barik ezin zaitezke bizi?**

Amets barik, familia eta lagun barik, identitate barik... Musika barik, zine barik, eta jan barik noski!

**Kolore horia, bai ala ez?**

Bai, besteak beste, eguzkiaren kolorea delako umeen marrazkietan.

**Baduzu ezizenik?**

Etxean xagu esaten zidaten, txikia eta kurioso nintzelako.

**Eguna ala gaua? Zergatik?**

Hori diot nik! Zergatik aukeratu, biak baldin baditugu?

**Parrandarik politenak non?**

Non ez da inportantea, nogaz baino! Musika, konpainia, *feeling*-a eta gogoa... Horiexek dira ezinbesteko osagaiak; lekua gutxienezkoa da.

**Zein barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian?**

Agintariak etikaz eta moralez gaixotu direla eta nahitaez bide onetik eramango dutela gure mundua. Espero dezagun gaixo horren kontrako txertoa aurkitu dutela ez izatea titularra.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna?**

Urdaibai. Lotura emozional sakona daukat inguru horregaz, bizitzako unerik goxoenak hango txokoetan bizi izan ditut-eta.

**Zein galderari ez zenioke inoiz erantzungo?**

Nola definituko zenuke zeure burua berba bitan? ○

**LABURREAN**— ETB2 telebista-kateko *Vaya Semanita* saioan parte hartu zuen Itziar Aienza galdakoztarrak (1977) eta horregatik egin zen ezagun ikusleen artean, baina aktore izan aurretik Zuzenbidea ikasi zuen. Aipatu saioaz gain, duela hilabete batzuk ikusi dugu *Bi eta Bat* saioan eta, duela aste gitxi, *Bypass* filma estreinatu du. Izandako harre-  
ragaz eta, orokorrean, emaitzagaz oso pozik dago. Gainera, *Ipar haizearen kontra* antzezlanaren emanaldiakaz dabil oraindino ere eta, gitxi balitz, beste antzezlan bat prestatzen hasiko da azaroan, oraingoan ere, Tanttaka taldeagaz.

# RUPER ORDORIKA

## KONTZERTURAKO SARREREN ZOZKETA

Azaroak 24. LEIOA

**ZOZKETAN PARTE HARTZEKO** delitu UK bulegoko zenbakira  
94 491 13 37 edo bidali mezua [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) eposta helbidera  
zure izen abizenak eta kontakturako datuak emanaz.

**uk**

UK Markoate 15, 2. solairua 1. bulegoa, 48902 GETXO UK 94 491 13 37 • 688 603 136 UK [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) [www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz) nik ere gure dat

# EUSKAL KULTURAREN XIV. JARDUNALDIAK

## XIV JORNADAS DE LA CULTURA VASCA



Azaroan eta abenduan  
Noviembre y diciembre

Klikatu!



[www.getxo.net/euskara](http://www.getxo.net/euskara)

